

The logo features the word "COMBI" in a bold, dark blue, sans-serif font. The letter "O" is replaced by a stylized speech bubble containing two overlapping circles, one red and one orange. The background is white with several light grey speech bubble outlines scattered around the text.

# COMBI

Communication competences for migrants  
and disadvantaged background learners in bilingual work environments

A red background with several speech bubble outlines in various colors (blue, yellow, pink, grey) scattered across it. Two horizontal white lines are positioned above and below the main text.

**IRAKASLEAK TREBATZEKO TRESNA-SORTA**

[combiproject.eu](http://combiproject.eu)



Co-funded by the  
Erasmus+ Programme  
of the European Union



# COMBI

Communication competences for migrants  
and disadvantaged background learners in bilingual work environments

## IRAKASLEAK TREBATZEKO TRESNA-SORTA

[combiproject.eu](http://combiproject.eu)



Co-funded by the  
Erasmus+ Programme  
of the European Union

<b>SARRERA</b>	<b>1</b>
GUTXIENGOAREN HIZKUNTZA IKASTEAREN SOZIOLOGIA	3
NOLA ERABILTZEN DA TRESNA-SORTA HAU?	6
<b><u>A. LANTOKIETAN ETA LAN-MERKATUAN DAUDEN KOMUNIKAZIO-BEHARRAK JASOTZEKO ETA AZTERTZEKO TRESNAK</u></b>	<b>8</b>
A.1. LANTOKIKO KOMUNIKAZIO-BEHARRAK JASOTZEA	9
A 1.2. JARDUNBIDE EGOKIETARAKO JARRAIBIDEAK — BEHARREN ANALISIAK (OROKORRA)	12
A 1.3. JARDUNBIDE EGOKIETARAKO JARRAIBIDEAK — BEHARREN ANALISIAK (GUTXIENGOAREN HIZKUNTZAK)	14
A2: TRESNA-KUTXA	16
A3: ESTEKA-ZERRENDA / MATERIALA	22
<b><u>B. DIZIPLINA ANITZEKO HURBILKETA IKASKETA-PROZESURA</u></b>	<b>23</b>
B.1. SARRERA — DIZIPLINA ANITZEKO HURBILKETA IKASKETA-PROZESURA	24
B.2. DIZIPLINA ANITZEKO HURBILKETAK HIZKUNTZAK IRAKASTEKO (OROKORRA)	26
B 1.3. DIZIPLINA ANITZEKO HURBILKETAK GUTXIENGOAREN HIZKUNTZAK IRAKASTEKO	31
B2: TRESNA-KUTXA	34
B.3 ESTEKA-ZERRENDA / MATERIALA	48
<b><u>C. ADINEKO PERTSONEN ZAINZAREN ALORREAN, DIZIPLINA ANITZEKO HURBILKETAK ERABILTZEN DITUZTEN ARIKETEN DESKRIBAPENA</u></b>	<b>49</b>
C.1. SARRERA - ARIKETEN DESKRIBAPENA	50
C 1.2. DIZIPLINA ANITZEKO HURBILKETAK ERABILTZEN DITUZTEN ARIKETAK (OROKORRA)	51
C 1.3. DIZIPLINA ANITZEKO HURBILKETAK ERABILTZEN DITUZTEN ARIKETAK (GUTXIENGOAREN HIZKUNTZAK)	52
C2: TRESNA-KUTXA	53
C3: ESTEKA-ZERRENDA / MATERIALA	60
<b>D. IKASTAROAK PLANIFIKATZEA DIZIPLINA ANITZEKO HURBILKETAK ERABILITA</b>	<b>61</b>



<b>D.1. SARRERA - IKASTAROAK PLANIFIKATZEA</b>	<b>62</b>
D.1.2. IKASTAROAK PLANIFIKATZEA (OROKORRA)	63
D.1.3. IKASTAROAK PLANIFIKATZEA (GUTXIENGOAREN HIZKUNTZAK)	64
D 2: TRESNA-KUTXA	65
D 3: ESTEKA-ZERRENDA / MATERIALA	65
<b>E. EBALUAZIORAKO TRESNAK</b>	<b>66</b>
E.1. E. SARRERA — EBALUAZIORAKO TRESNAK	67
E.1.2. EBALUAZIORAKO TRESNAK (OROKORRA)	69
E2: TRESNA-KUTXA:	70
E3: ESTEKA-ZERRENDA / MATERIALA	72

## SARRERA

Hizkuntza berri bat ikasteko garaian, ez da berdina gutxiengoaren hizkuntza bat edo gehiengoaren hizkuntza bat ikastea. Hala gertatzen zaie migratzaileei, edo gutxiengoaren hizkuntza bat ikasten duen edozeini. Gehiengoaren hizkuntza bat ikasten ari den migratzaileak aukera du, adibidez, gizartean parte hartzeko. Gutxiengoaren hizkuntza bat ikasten ari den migratzaileak, berriz, lan-ingurunean egoera jakinetan eta pertsona jakinekin bakarrik erabiliko du hizkuntza hori, ziurrenez. Are gehiago, gerta daiteke lantokian ikasten eta erabiltzen ari den gutxiengoaren hizkuntza hori ez izatea aplikagarria laneko funtzio guztietarako, eta, gainera, ezaugarri hori guztiz ezberdina da lantokiaren eta Europako hizkuntza-komunitatearen arabera.

Hori horrela, COMBI proiektuak tresna-sorta bat garatu du lantokietako eta hizkuntza-komunitateetako errealitateak kontuan hartzen dituen, eta, beharren eta testuinguruen arabera, maila ezberdinetarako hurbilketa pedagogikoak eskaintzen dituen. Labur esanda, hiztun berri guztien hizkuntza-ezagutza eta hizkuntza-eskubideak areagotzen laguntzeko erreminta bat da proiektu hau, gutxiengoaren hizkuntza ikasten eta erabiltzen hasi diren migratzaileak kontuan hartzen dituen. Tresna hauek, beraz, hizkuntza-maila guztietarako gida gisa erabiltzeko garatu dira, hasiberrietatik aditueta arte, baina kontuan hartzen dute norbanako bakoitzaren hizkuntza-helburuak (migratzaileen helburuak, kasu honetan) ezberdinak izan daitezkeela, eta hizkuntza bat guztiz menderatzea etorkizunerako duten helburuetako bat besterik ez dela.

Azterriko hizkuntza baten hiztunaren balioa beti neurtu izan da hiztun natibo baten hizkerari hurbiltzeko duen gaitasunaren arabera, edo hizkuntza-proba famatuaren bidez neurtutako kompetentzia formalak betetzeko gaitasunaren arabera. Hala ere, migrazioari eta hizkuntza-ikasketei buruz egindako soziolinguistika-azterketek erakutsi dutenez, beste ikuspuntu batzuk daude eztabaida horretan. Besteak beste, Extra et al.-ek (2009) aipatu zuten, integrazio-politikek huts egin dute hizkuntza-betebeharrei eta hizkuntza-probei dagokienez, politika horiek ez baitiete hiztunen benetako beharrei erantzun, eta ez baitute integrazio hobea lortu. Are gehiago, Jauregik (2017) Euskal Herrian egindako ikerketak erakusten duenez, hizkuntza baten ezagutza pasiboak inpaktu positiboa du hiztunengan, eta norbanakoaren hizkuntza-errepertorioaren zati gisa har daiteke. Gero eta azterketa gehiagok hizkuntzen ikasketa-prozesuaren fluidotasuna eta jarraitutasuna nabarmentzen duten arren, tresna-sorta honetan hiru eremutan banatu ditugu hiztun berrien beharrak, hurrengo orrian ikus daitezkeenez. Horrenbestez, tresna-sorta honetan azpimarratzen da hizkuntza-gaitasunen maila guztiak baloratu eta sustatu behar direla. Hori dela eta, hizkuntza-gaitasunaren barruko hiru eremuak bakoitza bere aldetik irakatsi eta ziurtatu daitezke, hau da, ahozko 1. maila duenak ez du zertan izan ahozko 3. maila gainditu ez duena.

**Laburbilduz, herrialde batean hilabete gutxi batzuk bizi den migratzaileak ere ekarpen handia egin diezaioke lan-inguruneari. Hori lortzeko, nahikoa da agurrak eta hitz-gakoak ikastea eta gutxiengoaren hizkuntzarekiko jarrera proaktiboa izatea; eta hori guztia tailer bakar batean irakats daiteke.**

<b>Hiztunaren maila</b>	<b>Hizkuntza-profila</b>	<b>Lantokiko egoera</b>
1. Jabeturik egotea, oinarritzko hiztuna (pasiboa/aktiboa)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jabeturik dago gutxiengoaren hizkuntza bat dagoela eta garrantzitsua dela.</li> <li>- Enpatia du gutxiengoaren hizkuntzaren erabiltzaileekiko, eta ikasten saiatzen da.</li> <li>- Agurrak, hitz gakoak, pertsona-eta leku-izenak eta abar ezagutzen ditu.</li> <li>- Ulermen intuitiboa lantzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lantokiko hizkuntza nagusia gehiengoaren hizkuntza da, eta bezeroek gutxiengoaren hizkuntza / bi hizkuntzak erabiltzen dituzte.</li> <li>- Lantokiko antolamendua (dokumentazioa, langileen bilerak) gehiengoaren hizkuntzan edo bi hizkuntzetan egiten da.</li> </ul>
2. Hiztun funtzionala / ahozko hiztuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtzio jakin batzuk egin ditzake gutxiengoaren hizkuntzan (bezeroari/pazienteari azaldu diezaioke zer egin behar duen, adibidez), baina ezin ditu funtzio guztiak bete (bezeroen/pazienteen txostenak azaldu langileen eguneroko bileran, adibidez).</li> <li>- Gutxiengoaren hizkuntza pixka bat edo guztiz ulertzen du, baina ez du hitz egiten.</li> <li>- Ahozko gaitasun osoa du, baina ez du irakurtzen, ezta idazten ere.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lantokiko hizkuntza nagusia gehiengoaren hizkuntza da, eta bezeroek gutxiengoaren hizkuntza / bi hizkuntzak erabiltzen dituzte.</li> <li>- Lantokiko antolamendua (dokumentazioa, langileen bilerak) gehiengoaren hizkuntzan edo bi hizkuntzetan egiten da.</li> <li>- Lantokiko hizkuntza nagusia gutxiengoaren hizkuntza da, baina dokumentazioa eta idatzizko hizkuntza gehiengoaren hizkuntzan egiten da.</li> </ul>
3. Hiztun osoa, gaitasun guztiak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntza-gaitasun guztiak betetzen ditu (hitz egitea, ulermena, irakurketa, idazketa), CEFRren B1-B2 mailan gutxi gorabehera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lantokiko hizkuntza nagusia gutxiengoaren hizkuntza da (eta bezero batzuek gehiengoaren hizkuntza erabiltzen dute).</li> <li>- Lantokiko antolamendua (dokumentazioa, langileen bilerak) gutxiengoaren hizkuntzan egiten da.</li> <li>- Gutxiengoaren hizkuntzari dagokion azterketa (B1-B2 CEFR maila) gainditu behar da lanpostua lortzeko.</li> </ul>

Gehiengoaren hizkuntzekin alderatuta, gutxiengoaren hizkuntzek ez dute prestigiorik izaten maiz. Hizkuntza horien historia soziokulturalaren eta politikoaren ondorioz, gutxiengoaren hizkuntzaren hiztunek nahiago izaten dute gehiengoaren hizkuntza erabili bizitza publikoan eta profesionalean, nahiz eta gutxiengoaren hizkuntza ezagutu. Adibidez, pertsona-talde batean gutxiengoaren hizkuntza hitz egiten ez duen pertsona bat badago, ziurrenez, gehiengoaren hizkuntzan hitz egingo dute guztiek elkarrekin. Hori ohitura bihur daiteke, eta oso zaila da ohitura hori aldatzea. Egoera bera ager daiteke lantokian. Adibidez, zahar-egoitza batean, dokumentaziorako eta jarduera profesionaletarako *de facto* hizkuntza gehiengoaren hizkuntza bada, langileen hizkuntza komuna zahar-egoitzako bezeroekin (edo bezero batzuekin) duten komunikaziora (ahozko komunikaziora) mugatuko da. Edonola ere, gerta daiteke langileen, bezeroen eta zaintza-langileen arteko komunikazio osoa gutxiengoaren hizkuntzan gertatzea eta idatzizko dokumentazioa izatea gehiengoaren hizkuntzan egiten den gauza bakarra.

Gutxiengoaren hizkuntzaren egoera definitzen duen beste ezaugarri bat estatus-gabezia da. Gerta daiteke langile batzuk, gutxiengoaren hizkuntza apur bat jakin arren, hizkuntza horren hiztun aktibo ez izatea. Hala gertatzean, hiztun berriak ez daude ikasten ari diren hizkuntzaz automatikoki inguratuta, eta beraz, ikasleek jarrera proaktiboa hartu behar izaten dute hizkuntza hori erabiltzeko. Hiztun berria migratzailea denean, gainera, ardura handiagoa du, ingurukoek ez baitute espero migratzailea gutxiengoaren hizkuntzaren hiztun izatea.

Tresna-sorta honetan, "hiztun funtzional" izateari emandako balioa ere kontuan hartzen da. Hiztun funtzionala ez da huts asko egiten dituen hiztun osoa. Gutxiengoaren hizkuntzaren oinarrizko jakintza dutenek edo komunikatzeko gaitasuna dutenek (nahiz eta gramatikoki zuzen ez egin) ez dute beren burua hiztuntzat hartzen, ez dute jarrera positiborik???, eta, beraz, ez dira ausartzen dakitena erabiltzera. Gehiengoaren hizkuntzen kasuan, hori ez da gertatzen, pertsonak ez baitute hizkuntza hori erabiltzea beste aukerarik besteek ulertzea nahi badute, oinarrizko hizkuntza-gaitasunak soilik izan arren. Horrenbestez, tresna-sorta honen helburua da gutxiengoaren hizkuntzetako hiztunek duten ezagutzari balioa ematen laguntzea, ezagutza hori hitz gutxikoa bada ere. Hizkuntzak ikasteko garaian jarrera positiboa eta irekia lortu nahi da, hasierako hitz apurretatik aurrera egiten lagundu dezakeena.

Azkenik, kontuan hartu behar da gutxiengoaren hizkuntza ikasteko aukerak aktiboago bilatu behar direla gehiengoaren hizkuntzak ikasteko baino. Tresna-sorta honetan, hizkuntza hitz egiteko eta erabiltzeko espazio komunak sortzeko estrategiak garatu dira. Horrez gain, bi hizkuntzak lantokiko eskaeren arabera nola erabili azalduko duten ariketak azaldu eta praktikatu ditugu. Gure helburua da hizkuntza baten erabilera-maila guztietarako materiala (hots, tresnak) eskaintzea, betiere hizkuntzaren azken erabiltzaileak gogoan izanik (alegia, adineko pertsonak edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonak, zeinen bizi-kalitateari eragiten baitie ingurukoek beren hizkuntza ezagutzeak edo erabiltzeak).





### **Xede-taldeak**

1. Lanbide-heziketako irakasleentzat eta hizkuntza-irakasleentzat egin da material hau. Material espezifikoa dago behar zehatzak dituen talde bakoitzarentzat.
2. Materiala migratzaileak diren ikasleekin erabiltzeko sortu da, baina bestelako ikasleekin ere erabil daiteke, batez ere interes jakinak dituzten taldeekin, hala nola zahar-egoitzetako zaintzaileak, emakume migratzaileak eta abar.
3. Materiala hainbat tokitan erabil daiteke, besteak beste, lantokian, hizkuntza-eskoletan edo lanbide-heziketako eskoletan. Kasu bakoitzean behar den materiala ezberdina da (esaterako, hizkuntza-eskolek zahar-egoitzetan erabiltzen den materiala beharko dute, zahar-egoitzek arbel bat...).
4. Oro har, ikasleak gehiengoaren hizkuntza jakin behar du irakaskuntza-metodo hau eta ariketak aplikatzeko, eta gehiengoaren hizkuntza hori erabili / hitz egin / ulertu egin behar da lantokian.

### **Erabilitako terminoak:**

H1 – 1 Hizkuntza: hiztunek lehen hizkuntza gisa duten gehiengoaren hizkuntza (adibidez, latinoamerikarrak Euskal Herriko zati espainiarrean).

A1 – 1 Ardatz-hizkuntza: hiztunen lehen hizkuntza ez den gehiengoaren hizkuntza (adibidez, marokorrek gaztelaniaz hitz egiten Hego Euskal Herrian).

H2/3 – 2/3 Hizkuntza: ikasleak ikasi nahi duen gutxiengoaren hizkuntza (adibidez, euskara latinoamerikarren eta marokorren kasuan, Hego Euskal Herrian).

\*Oharra: Jakitun gara hizkuntza-kategoriak oso mugatuak direla hizkuntza ikasteko prozesu fluidoak deskribatzeko garaian. Hizkuntza-ikasketari buruzko diskurtso postestrukturalistan luze eta zabal kuestionatu da gai hori. Hala ere, argitasuna eta zehaztasuna emateko asmoz, goian aipatutako ezagutza-kategoria ezagunak erabili ditugu.

## NOLA ERABILTZEN DA TRESNA-SORTA HAU?

Kasu egin “Erabiltzailearen eskuliburua” ataleko jarraibideei gidaliburu hau zure beharren arabera erabiltzeko.

### Kapitulu bakoitzak hiru zati ditu:

1. Jarraibideak
2. Tresna-kutxa
3. Esteka-zerrenda

#### **Adibidez:**

A kapituluak hiru zati ditu

#### **A zatia: Jarraibideak**

A. 1 Sarrera

A. 2 Jarraibide orokorrak

A. 3 Jarraibide espezifikoak, gutxiengoaren hizkuntzarekin gerta daitezkeen egoerak.

#### **B zatia: Tresna-kutxa**

Atal honetan, hizkuntza-komunitate eta egoera ezberdinetarako tresna praktikoak daude: galdetegiak, txantiloiak, ebaluaziorako galdera estandarrak, planifikazio-adibideak eta abar.

#### **C zatia: Esteka-zerrenda**

Atal honetan, gaiari buruzko informazio gehiago duten estekak daude: gaiari buruzko literatura, webguneak, pdf dokumentuak hainbat hizkuntzatan, orri originalak eta liburuxkak.

NOLA ERABILTZEN DA TRESNA-SORTA HAU?

## Adibide praktiko bat:

Hizkuntza-ikastaro profesional bat lehen aldiz planifikatu behar duen hizkuntza-irakaslea zara, eta beharren azterketa bat egin behar duzu:

⇒ Irakurri lehen kapitulu osoa, A1etik A3ra bitartean.  
Hor, informazioa eta materiala aurkituko dituzu.

Lan-behaketa edo beharren analisia egitera ohituta bazaude baina gutxiengoaren hizkuntzarekin edo egoera elebidun batean inoiz lan egin ez baduzu:

⇒ Irakurri A kapituluaren gehiengoa, A1.3 atala eta bila ezazu material espezifikoa A2 atalean.

Lantokietako beharren analisiak egitera edo gutxiengoaren hizkuntza-egoeretara ohituta bazaude baina material berria edo oinarritzko literatura nahi baduzu:

⇒ Irakurri lehen kapituluko sarrera, A1 atala, eta joan zuzenean A2 eta A3 ataletan dauden tresna-kutxara eta esteka-zerrendara.

## A. LANTOKIETAN ETA LAN-MERKATUAN DAUDEN KOMUNIKAZIO-BEHARRAK JASOTZEKO ETA AZTERTZEKO TRESNAK

Lan-behaketa tresna garrantzitsua eta erabilgarria da ikasleentzat, lantokian zer komunikazio-behar dauden jakiteko. Behaketaren bidez, ikasleek lan-ibilbide espezifikoak aztertu eta lanpostu bakoitzean egin beharrekoen irudi errealista lortzen dute. Hala, hautatu duten lan-ibilbideari buruzko erabaki informatua egiten laguntzen zaie ikasleei.

COMBI proiektuaren testuinguruan, lan-behaketaren bidez, ikasleek, eta irakasleek bereziki, lantokiaren beharrak zein diren jakin dezakete, egoera errealak aurreikus ditzakete eta horiei aurre egiteko mekanismoak eta estrategiak planifikatu.

Lan-behaketaren bidez, langileen hizkuntza-jardunak behatu ditzakete ikasleek eta irakasleek, eta zuzenean ikus dezakete zer jarduera egiten diren gehiengoaren hizkuntzan eta zein gutxiengoaren hizkuntzan. Garrantzitsua da jakitea, adibidez, jarduera linguistiko berean eguneko orduaren arabera gehiengoaren edo gutxiengoaren hizkuntza erabiltzen den (lan-karga handiena dagoen orduetan zer gertatzen den, adibidez).

Kapitulu honen lehen zatian (A1 atala), sarrera labur bat dago, azalduz zein diren ohiko hizkuntza-ikastaro baten eta ikasleei lanean eskatuko zaizkien zeregin profesionalak betetzen lagunduko dien hizkuntza-ikastaro baten artean.

Hurrengo bi kapituluetan, berriz, beharren balorazioari eta lan-behaketari buruzko jarraibideak eta aholkuak daude. Lehenengoan, teknika horiek nola aplikatu azaltzen da orokorrean, eta, bigarrenean, gutxiengoaren hizkuntzen kasuan edo lantoki elebidunen kasuan teknika horiek aplikatzeko modua azaltzen da.

A2 atalean, teknika horiek aplikatzeko behar dituzun tresnetan klik egin edo horiek deskargatu ditzakezu. Azkenik, A3 atalean, Europako sareetan beharren balorazioari buruz dagoen literatura eskuratzeko esteka garrantzitsuak aurkituko dituzu.

### **Kapitulu honen helburua:**

Kapitulu hau hizkuntza-irakasleentzat eta lanbide-heziketako irakasleentzat da, eta beharren analisi bat nola egin azaltzen da, dela elkarrizketen bidez, dela lantokian bertan lan-behaketa eginez.

Gutxiengoaren hizkuntzarekin ager daitezkeen egoerei arreta berezia jarri zaie.

## A.1. LANTOKIKO KOMUNIKAZIO-BEHARRAK JASOTZEA

Lantoki edo ikasle-talde jakin batentzat beharren analisia prestatzerakoan, komunikazio-beharrak aztertzeko moduari buruzko informazioa ematen diguten bi adierazle nagusi daude:

- **Erakundeak edo konpainiak hizkuntza-politika bat izatea eta haren edukia, edo helburu (linguistikoa), edo misioa**
- **Ikasleek lantokian bete beharreko komunikazio-behar zehatzak eta haiei eragiten dieten faktore soziolinguistikoak (adibidez, langileen hizkuntza, dokumentazioaren hizkuntza eta abar).**

Hizkuntza-politikari buruzko informazioa lortzeko nahikoa da langileen buru den erakundeko funtzionarioei edo zuzendaritzari eskatzea. Hobe da informazio hori ahalik eta zehatzena izatea, dagoen dokumentazio guztia ahalik eta gehien erabiltzeko.

Erakunde, eskualde edo konpainia baten hizkuntza-politika ezagutzeak asko lagunduko du hizkuntza-ikastaroaren edo programaren helburuak zehazten: esaterako, langileek hitzun adituak izan behar dute? Edo hizkuntza ezagutzea da langileen berehalako lehen tasuna? Hizkuntza horri dagozkion helburu jakinak ditu erakundeak edo eskualdeak (udalak, konpainiak eta abarrek)? Eta zer epe ditu helburu horiek betetzeko? Edo gai horietan ez esku-hartzeko jarrera du?

Kontuan hartu beharreko bigarren adierazlea, berriz, lantoki bakoitzak eskatzen duen komunikazio-behar zehatzetan oinarritzen da, eta hainbat teknika daude informazio hori jasotzeko. Teknika horiek esparru teoriko jakin baten barruan kokatu behar ditugu, zeinak ohiko hizkuntza-ikastaroen eta lantokien beharretara egokituta eta zereginetan oinarrituta dauden hizkuntza-ikastaroen arteko ezberdintasunak aztertzen baititu.

Lantokiko komunikazio-beharrak aztertzeari buruzko eztabaida zientifikorik aurreratuenetako bat Marjatta Huhta et al.-ek egindako lanean aurki daiteke: “Needs Analyses for Language Course Design” (Cambridge University Press, 2013).

Europako Batzordeko CEFR jarraibideen arabera —*Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment*—, lantokiko beharren araberrako hizkuntza-ikastaro baten eta ohiko hizkuntza-ikastaro baten artean dagoen ezberdintasuna da ikasketaren zati gisa hartzen dela zeregin profesionalak betetzeko lehen tasuna eta betebeharra. Gutxiengoaren hizkuntzen kasuan, are garrantzitsuagoa da hori; izan ere, litekeena da zeregin profesional guztiak hizkuntza horretan egiteko beharrik ez izatea (hau da, ahozko komunikazioa gutxiengoaren hizkuntzan egin arren, dokumentazio guztia gehiengoaren hizkuntzan egitea, adibidez).

Horrenbestez, informazioa jasotzeko modua garrantzitsua da. Hori egiteko bide nagusiak hauek dira: behaketa (lan-behaketa), elkarrizketa pertsonalak (aurrez aurre) eta idatzizko elkarrizketak langileekin, nagusiekin eta gainerako alderdi interesdunekin, bai eta norberaren balorazioa ere. Bide bakoitzak ditu aldeko eta kontrako ezaugarriak, ikasleen, irakasleen edo enplegatzailearen arabera.



CEFRren jarraibideak zorrotz jarraituta ere, zereginak betetzea litzateke lantokiko hizkuntza ikasteko helburua. Lantokiaren kasuan, lan-eremuko komunikazio-jarduera da interesatzen zaiguna. Hutha et al.-ek (2013) azaltzen duenez:

“Horrek esan nahi du komunikatzeko zeregina lantokiko testuinguruaren zati garrantzitsua dela, baina hizkuntzaren eta hizketa-trebetasunaren bidez betetzen dela (ezagutza tekniko espezifikoak behar dituzten lantoki-zereginak ez bezala).”

Garrantzitsua da jarduera linguistiko zehatzak bilatzea, adibidez, pazienteei **kontsolamendua ematea** eta **segurtasun-sentipena** helaraztea, familiako kideei **terminologia profesionala azaltzea** edo beste profesional batzuei **informazio zehatza ematea**.

Beharren balorazioa —lan-behaketa, bereziki—, ikastaroaren curriculum sortzeko erabilgarria izateaz gain, tresna garrantzitsua da hizkuntza-irakasleak eta lantokia elkartzeko.

Lan-behaketa edo elkarrizketak erabiltzen hasi aurretik, ezinbestekoa da jakitea lantokiak informazio/dokumentu hauek badituen edo erabiltzen dituen:

- Lanaren deskribapena: funtzioak, zereginak eta betebeharrak.
- Laneko arauak eta protokoloak.
- Jardueren nondik-norakoa eta haien arteko harremanak definitzen dituzten prozesu-mapak.

Horri dagokionez, erabilgarria litzateke lantokiko giroa ezagutzea lan-behaketa edo elkarrizketak egin aurretik.





## A 1.2. JARDUNBIDE EGOKIETARAKO JARRAIBIDEAK — BEHARREN ANALISIAK (OROKORRA)

Atal honetan, adineko pertsonen zaintzaren alorrean beharren analisia eta lantokiaren balorazioa egiterakoan kontuan hartu beharrekoak aztertuko dira:

- Lan-behaketa aurretiaz eztabaidatu eta adostu behar da langileekin eta zuzendaritzarekin (helburuak eta konfiantza).
- Normala da lan-behaketa baten parte den pertsona deseroso sentitzea. Horregatik, lagungarria izan daiteke hauek egitea:
  - Gainerako pertsonak agurtzea eta zer egiten ari zaren azaltzea.
  - “Ikusezina bihurtzea”, laneko uniformeak jantzita, edo nabarmendu gabe aritzea.
  - Hizkuntza-ikastarorik behar ez duten eta lan bera egiten duten pertsonekin lan-behaketa egitea.
- Lan-profilari buruzko oinarrizko xehetasunak ezagutzen badira (lanaren deskribapenean, interneten eta lanbide heziketako materialean aurkitutako informazioa), lantokiko errealitatearekin aldera daitezke informazioan aipatutako oinarrizko komunikazio-funtzioak.
- Komunikazioan, jardunbide egokiek beti izan behar dute arau, nahiz eta lantokian langileak ez komunikatu eskatu bezala (adibidez, bezeroari ez diotenean esaten zer egin behar duten, hori azaltzeko denbora gehiegi behar delako). Hizkuntza-ikastaroetan, ezinbestekoak dira jardunbide egokiak, bai irakastean bai ikastean.
- Elkarrizketetan, garrantzitsua da galdera oso zehatzak egitea, irakatsi behar diren hizkuntza-egiturak zein diren jakiteko (esaterako, ez da nahikoa “Ogia nahi duen galdetuko diot” jasotzea). Esaten dituzten esaldi zehatzak eta horien testuingurua ezagutu beharko dituzu (“Ogia? Baduzu ogirik? Ogirik behar du norbaitek? Ogi gehiago nahi duzu?”).
- Idatzizko hizkuntzari dagokionez, elkarrizketetan kontuan hartzen da alfabetizazio-maila (edo alfabeto latinoan duten alfabetizazio-maila) edo H2 hizkuntzan idatzizko komunikazioaren bidez norberak bere burua adierazteko gaitasuna.
- Aurrez aurreko elkarrizketetan, oso lagungarria da grabagailu bat erabiltzea eta transkripzio literala egitea.
- Lagungarria da, halaber, lan berdina egiten duten hainbat langileri egitea elkarrizketa edo langile bat baino gehiagoren lan-behaketa egitea, komunikazio-beharren ikuspegi osoa lortzeko.



- Ikus Tresna-kutxa, norberak egindako balorazioari buruzko informazio gehiago jasotzeko.

### A 1.3. JARDUNBIDE EGOKIETARAKO JARRAIBIDEAK — BEHARREN ANALISIAK (GUTXIENGOAREN HIZKUNTZAK)

Gehiengoaren hizkuntza erabiltzen duen edo elebakarra den egoeran egiten den beharren analisia ez da egoera elebidunean egiten den analisiaren berdina. Gutxiengoaren hizkuntza bat dagoenean, faktore soziolinguistikoak kontuan hartu behar dira. Faktore horiek egiturazkoak edo inerteak izan daitezke.

- Beharren balorazioan, hizkuntza-politikak sartu behar dira, eta kontuan hartu. Hor sartzen dira, bai dagoeneko indarrean dauden hizkuntza-politikak, bai etorkizunerako aurreikusten diren hizkuntza-gaitasunak.
- Ezinbestekoa da jakitea gutxiengoaren hizkuntza nola erabiltzen den lantokian: bezeroekin hitz egiteko bakarrik, bezeroen eta langileen arteko komunikaziorako, bileretan, txostenetan eta abar.
- Bereziki lagungarria da gutxiengoaren hizkuntza erabiltzen den egoeratan behaketak / lan-behaketak egitea, —elkarrizketak egitea baino hobea da—. Hala, komunikazio-egoeran eragiten duten faktore guztiak ikus ditzakegu (egoera linguistikoa, bezeroen hizkuntza, langileen hizkuntza, idatzizko/ahozko hizkuntza...).
- Lan-behaketa egiten ari garela hartutako oharra txantiloietan jaso behar dira; adibidez: hiru langile gehiengoaren hizkuntzan hitz egiten ari dira, horietatik bi gutxiengoaren hizkuntzako hitzun natiboak dira eta hirugarrenak ongi ezagutzen du; talde-jardueren monitoreak gehiengoaren hizkuntzan egiten du bere lana, taldea mistoa da hizkuntzari dagokionez; langile bat bezero baten familiako kideekin gutxiengoaren hizkuntzan hitz egiten saiatzen da (familiako kideek haien artean gutxiengoaren hizkuntzan hitz egiten dute), eta familiako kideak gehiengoaren hizkuntzan hitz egiten diote segituan.
- Gutxiengoaren eta gehiengoaren hizkuntzak batera dauden egoerak ez dira inoiz neutroak. Beti dago “politikoki zuzenaren” faktorea (faktore horrek gehiengoaren hizkuntza edo gutxiengoaren hizkuntza erabiltzera bidera dezake hitzuna, egoeraren arabera). Lan-behaketa edo elkarrizketa erabili, garrantzitsua da egoera errearen irudia lortzea, ez jendeak beragandik espero duen hori egiten edo esaten ikustea.
- Inguruneko jarrera ezagutzea garrantzitsua da gutxiengoaren hizkuntza dagoen egoeran: gutxiengoaren hizkuntzaren erabilera sustatzen dute natiboek edo hitzun osoek (lantokiko langileek edo lankideek)? Badute pazientziarik? Haiek erabiltzen dute hizkuntza? Lantokian, zer egiten da “lehen hitzari” dagokionez?
- Halaber, zahar-egoitzetan, eguneko zentroetan eta abar, interesgarria da ikustea lan-karga txikiagoa den orduetan zer gertatzen den —izan ere, askotan ordu horietan errazagoa izaten da bezeroekin edo lankideekin gutxiengoaren hizkuntzan hitz egitea—, eta lan-erritmoa handitzen denean eta komunikazio fluidoa beharrezkoa denean nola jokatzeko den —gehiengoaren hizkuntzara jotzen da, hasieran bezala—.
- Horrez gain, kontuan hartu behar dugu gutxiengoaren hizkuntza erabiltzeak



hizkuntza-aldaketa eskatzen duela, eta, maiz, hizkuntza bera ikastea baino zailagoa izaten dela hori. Beharren analisiaren helburuetako bat da hizkuntza-aldaketa hori gertatzen diren kondizioak behatzea (norekin, noiz, zer funtziotarako eta abar aldatzen den).

## A2: TRESNA-KUTXA

Txantiloien hauen helburua da zure ikastaroa antolatzeko beharko duzun informazioa batzeko modu ezberdinak izatea:

1. **Zahar-egoitzako galdetegia:** lan-behaketarako informazioa jasotzeko txantiloia.
2. **Zahar-egoitzako galdetegia (gehiengoaren hizkuntza):** lan-behaketarako gehiengoaren hizkuntzari buruzko informazioa jasotzeko txantiloia.
3. **Lan-behaketarako txantiloia:** langileen gaitasun orokorrei eta hizkuntza-gaitasunei buruzko informazioa jasotzeko txantiloia.
4. **Lan-behaketa Eguneko zentroan. Adibidea:** Behaketa baten adibidea.

**1. Zahar-egoitzako Galdetegia (Gehiengoaren hizkuntza)**  
**(Gutxiengoaren hizkuntzaren hiztuna — hiztun natiboa / osoa)**

Izena: .....

Funtzioa: ..... Data: .....

**1. Zer funtzio/lan egiten dituzu egunero etxeko zaintzaile-lanean?**

.....  
.....

**2. Zer egoeratan hitz egiten duzu adineko pertsonekin/zure bezeroarekin?**

.....  
.....

**3. Zer hizketaldi izan ohi dituzu egoera horietan?**

.....  
.....

**4. Zer motatako hizketaldiak izaten dituzu zure enplegatzailearekin, familiarekin?**

.....  
.....  
.....

**5. Zer jakin behar duzu zure bezeroarekin gutxiengoaren hizkuntzan komunikatu ahal izateko? Dakizun guztia erabiltzen duzu? Hala egiten ez baduzu, zergatik da?**

.....  
.....

**2. Zahar-etxeko Galdetegia (Gehiengoaren hizkuntza)**  
**(Gutxiengoaren hizkuntzaren hiztuna — hiztun natiboa / osoa**

Izena: .....

Funtzioa: ..... Data: .....

**6. Zer funtzio/lan egiten dituzu egunero etxeko zaintzaile-lanean?**

.....  
.....

**7. Zer egoeratan hitz egiten duzu pertsona nagusiekin/zure bezeroarekin?**

.....  
.....

**8. Zer hizketaldi izan ohi dituzu egoera horietan?**

.....  
.....

**9. Zer motatako hizketaldiak izaten dituzu zure enplegatailearekin, familiarekin?**

.....  
.....  
.....

**10. Zer behar duzu zure bezeroarekin gutxiengoaren hizkuntzan komunikatu ahal izateko? Dakizun guztia erabiltzen duzu? Hala egiten ez baduzu, zergatik da?**

.....  
.....





### 3. Lan-behaketarako txantiloia: behaketa-txantiloia

<b>Data:</b>	<b>Tokia:</b>	
<b>Ordua:</b>	<b>Iraupena:</b>	
Komunikazioa gertatzen den egoera:		
Parte-hartzaileak (langilearen izena, funtzioa):		
Parte-hartzaileak (egoiliarak, egoera, hizkuntza H1 / A1 / H2):		
<b>Ekintzak</b>		
ekintza:		Oharrak:
ekintza:		Oharrak:
ekintza:		Oharrak:
ekintza:		Oharrak:
5. ekintza:		Oharrak:

#### 4. Lan-behaketa eguneko zentroan, adibidea

<b>Data: 2019ko apirilaren 12a</b>	<b>Tokia:</b>	Eguneko zentroa
<b>Ordua: 14:00</b>	<b>Iraupena:</b>	30 min.
<i>Komunikazioa gertatzen den egoera:</i>  (adib.: gosaria banatzen)		
<i>Parte-hartzaileak (langilearen izena, funtzioa):</i>  (adib.: Fatima, zaintzailea; Rose, solairuko arduraduna)		
<i>Parte-hartzaileak (egoiliarrak, egoera, hizkuntza H1 / A1 / H2):</i>  (adib.: 2. solairuko 10 egoiliarrak, Fatimak eta Rosek gosariak banatzen dituzte gelaz gela; Fatimak eta Rosek H1 erabiltzen dute haien artean hitz egiteko, Rose elebiduna da, Fatimaren H1 arabiera da, A1 ongi hitz egiten du eta H2ko zenbait hitz erabiltzen ditu)		
<b>Ekintzak:</b>		
<i>1.ekintza: (Adib.: atea jo eta gelara sartzea)</i>  F: Egun on – Buenos días R: (berdina)		<i>Oharrak:</i>  Fatimak badaki zein bezerok hitz egiten duten gutxiengoaren hizkuntzan, eta hala agurtzen ditu
<i>1.ekintza: (Adib.: ogia banatzea)</i>  F: Quieres pan? / Ogia? Cuánto? R: Fatima, Max dice que le duele la boca		<i>Oharrak:</i>  F: ogiari dagokion hitza badaki (“ogia”), baina ezin du galdetu zenbat nahi duen, ezin du esan “Nahi duzu...?” Erantzuna ulertzen du: 3 arteko zenbakiak eta “ez dut nahi”
<i>1.ekintza: (adib.: Kafea/tea banatzea)</i>		<i>Oharrak:</i>

### A3: ESTEKA-ZERRENDA / MATERIALA

Hizkuntza-gaitasunak baloratzea lan-eremuan (alemana bigarren hizkuntza gisa irakastea)

[http://www.netzwerk-iq.de/fileadmin/Redaktion/Downloads/IQ\\_Publikationen/Thema\\_Sprachbildung/Br oschuere\\_Sprachbedarfsermittlung\\_2012.pdf](http://www.netzwerk-iq.de/fileadmin/Redaktion/Downloads/IQ_Publikationen/Thema_Sprachbildung/Br oschuere_Sprachbedarfsermittlung_2012.pdf)

Gaitasunen azterketa: zaintza- eta laguntza-langileen enplegatzaileentzako eta zuzendaritzarako baliabideak, lantokian komunikazio- eta zenbaki-gaitasunak lantzeko

<https://www.scie.org.uk/workforce/careskillsbase/>

Lantokiko beharren analisietarako galdetegiak osatzeko galderak

[https://www.deutsch-am-arbeitsplatz.de/fileadmin/user\\_upload/PDF/needs-analysis-qs.pdf](https://www.deutsch-am-arbeitsplatz.de/fileadmin/user_upload/PDF/needs-analysis-qs.pdf)

CEFRn oinarritutako autoanalisi-koadroak, Europako 34 hizkuntzatan

<https://www.coe.int/en/web/portfolio/self-assessment-grid>

Lantokian Ikasten — Irakasleentzako gida, ArbetSam-en zati gisa garatutako gida, eztabaidetarako eta ikasketa-plan indibidualetarako txantiloak dituen

[http://www.aldrecentrum.se/sites/default/files/Global/TDAR/Spanish/A%20guide%20for%20teachers\\_150204.pdf](http://www.aldrecentrum.se/sites/default/files/Global/TDAR/Spanish/A%20guide%20for%20teachers_150204.pdf)

**DIALANG** : Onlineko diagnostiko-sistema, pertsona batek Europako 14 hizkuntzatan duen gaitasuna aztertzeko

Van Avermaet, Piet / Gysen, Sara (2006): Language learning, teaching and assessment and the integration of adult immigrants. The importance of needs analysis. Council of Europe. Strasbourg.

## B. DIZIPLINA ANITZEKO HURBILKETA IKASKETA-PROZESURA

Kapitulu honen lehen zatian, hizkuntzak ikasteko prozesura diziplina anitzetatik egindako hurbilketen ideia orokorra azalduko da, bai eta, ikasteko bide tradizionalekin alderatuz gero, gure hurbilketa metodologikoak zer ezberdintasun dituen ere, bereziki migratzaileei dagokienez, zeinak H2 ikasteaz gain, H3, H4... ikasten ari baitira. Lanbide-heziketako irakasleek eta hizkuntza-irakasleek kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuak daude. Lanbide-heziketako irakasleek ez dute hizkuntza-irakasle izan behar, baina hizkuntzak ikasteko prozesuak ulertu behar dituzte; besteak beste:

- Hizkuntzak ikasteko prozesua eta hizkuntza arrunta erabiltzeko beharra ulertu behar dute.
- Material, simulazio eta eremu errealak erabili behar dituzte.
- Kultura- eta erlijio-aniztasuna kontuan hartu behar dute, eta irakasleei oinarrizko informazioa eman behar diete.
- Komunikazioa ezaugarri profesional gisa landu behar dute —adibidez, frasieraz garrantzitsua da adineko pertsonen ‘jo’ (gaztelaniazko “usted”) esatea ‘do’ (“zu”) beharrean, errespetua adierazteko—.
- Antzerkia eta ariketa praktikoak erabiltzea.
- Gutxiengoaren hizkuntzak duen garrantziaz jabetuaraztea ikasleak. Oso garrantzitsua da ikasleei helaraztea zein garrantzitsua den adineko pertsonekin gutxiengoaren hizkuntza erabiltzea, kalitate oneneko zerbitzua ziurtatzeko.

Hizkuntza-irakasleek, berriz, zaintza-sektorean behar diren gaitasun profesionalei buruzko oinarrizko informazioa izan behar dute. Horrenbestez, hizkuntza eta gaitasun profesionalak batera irakastea litzateke egoera ideiala, hau da, irakaskuntza partekatua izatea.

Kapitulu honen hurrengo zatian, hurbilketa pedagogiko ezberdinei buruzko xehetasunak eta azalpenak aurkituko dituzu. Gainera, hurbilketa horiek ikasleekin erabiltzeko behar diren materialen xehetasun handiagoa ematen duten estekak daude. Material horretan aurkituko dituzu, besteak beste, irakasleen oharrak, ariketen adibide zehatzak, deskribapenak eta bideoak. Are gehiago, **irakasleen oharrak** zuzenean ikusi edo deskargatu ditzakezu B2 ataleko tresna-kutxatik.

Kapitulu honen helburua:

Kapitulu honen helburua da ikastaroak eta klaseak ikuspuntu ezberdinetatik sortzen eta planifikatzen laguntzea hizkuntza-irakasleei eta lanbide-heziketako irakasleei. Hainbat gaitan aholkuak eskaintzen ditu —esaterako, simulazioen eta rol-jokoan erabilera, soziolinguistikak, erlijioak eta kulturen arteko bestelako gaiak duten inpaktua eta abar—, irakasleei alderdi horiek klaseetan txertatzen laguntzeko.

Halaber, irakasleek beraien adibide-dokumentuak txertatzeko aukera ere izango dute.

## B.1. SARRERA — DIZIPLINA ANITZEKO HURBILKETA IKASKETA-PROZESURA

Hizkuntza-pedagogian, metodo berritzaileak erabiltzea gomendatzen da, eta aintzatespen handia dute hurbilketa horiek. Tresna-kutxa hau osatzeko kontuan hartu diren hurbilketa metodologikoak hizkuntzen ikasketan eta irakaskuntzan erabiltzen dira nazioartean, hala nola:

- CLIL (*Content and language Integrated Learning* edo edukien eta hizkuntzaren ikasketa bateratua).
- Arazoetan oinarritutako ikasketa (*Problem Based learning*).
- Antzerkia atzerriko hizkuntzak ikasteko.
- Gidoiak (*Scenarios*)

Gutxiengoaren hizkuntza bat ikasteko garaian, bereziki lantokian behar bereziak dituzten migratzaileen kasuan, erronka gehigarri batzuekin egiten dugu topo, gehiengoaren hizkuntza ikasterakoan aurkituko ez ditugunak. Aurreko kapituluetan azaldu bezala, erronka horiek bi faktoretan laburtu ditzakegu: gutxiengoaren/gehiengoaren hizkuntzen arteko egoera soziolinguistikoa eta bi hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko beharra.

Kapitulu honetan, erronka horiei erantzun diezaieketen hurbilketa metodologikoak azalduko dira. Aipatutako bi faktore horiek beti hartu behar dira kontuan lantokiko beharretarako gutxiengoaren hizkuntzak irakasteko garaian, eta, beraz, irakasteko erabiliko den metodologian txertatu behar dira eta ikasleei aplikatutako ariketen parte izan behar dute. Pertsona migratzaileei hizkuntzak laneko helburuetarako irakastean (osasun-zaintza, adineko pertsonen zaintza eta abar) eragin dezaketen gaietarako hurbilketak daude kapitulu honetan. Irakasleek beren ikastaroetan aurkituko dituzten erronkei aurre egiteko ideiak eta horiek ariketen bidez lantzeko adibideak biltzea da asmoa.

Ezberdinak dira gutxiengoaren hizkuntza bat H2 edo H3 gisa ikasteko metodologia eta gehiengoaren hizkuntza ikasteko erabiltzen dena. Kasu gehienetan, migratzaileek gehiengoaren hizkuntza ikasteko ohiko ikastaroak jasotzen dituzte (ikus COMBI Output 1). Gutxiengoaren hizkuntza irakasteko garaian, ikasleengan inpaktua eragitea da irakaslearen erronka. Horrek esan nahi du ikasleak motibatu egin behar direla eta



ulertarazi behar zaiela zenbateraino den erabilgarria gutxiengoaren hizkuntza.

Hurrengo atal hauetan, hausnarketarako oinarria eta ariketetarako ideiak emango dira, gai horietan lan egiten duten beste profesional batzuek ere erabil ditzaketenak.

## B.2. DIZIPLINA ANITZEKO HURBILKETAK HIZKUNTZAK IRAKASTEKO (OROKORRA)

### Hurbilketa metodologikoak:

#### → **Ikaslearen ezagutza (profesionala eta linguistikoa) aktibatzea:**

- Unitate didaktikoetan sartzen dira, bai esperientziak eta ezagutza partekatzea, bai adineko pertsonen zaintzan gutxiengoaren hizkuntza (H2) erabiltzeari buruzko esperientzia profesionala lortzea.
- Helburua da adineko pertsonen zaintzan ezagutza profesionala lortzea, ariketa gidatuaren bidez. Ikasleek lanean izango dituzten hizkuntza-behar errealak ikus ditzaten nahi da, eta, aldi berean, ikasleak ahaldundu nahi dira dituzten gaitasun profesionalei balioa emanez (ez dira bereizten trebakuntza-tituludunak eta langile autodidaktak).
- Gutxiengoaren hizkuntza (H2) ezagutzeko prozesuan oinarritzen da irakaskuntza, eta ezagutzaz jabetzen hasten laguntzen duten ariketak erabiltzen dira. “Ezer ez” dakitela uste badute ere, ikasle asko konturatzen dira oinarritzko hitzak edo esaldiak bereganatu dituztela, kontziente izan gabe, behin eta berriro entzun edo irakurri dituztelako.
- Alderdi horiei buruz hausnartzeak eta horiek aktibatzeak esan nahi du ikasturtean zehar gehiengoaren hizkuntza (H1/A1) erabiltzea beharrezkoa dela komunikatu ahal izateko.

#### **Ikus ariketak:** MUGIKORTASUNA 2. ariketa

**Ikus irakaslearen oharrak:** 3. Hizkuntza-irakaskuntza 3.2. Gaia: hizkuntzen ezagutza nola aktibatu: nola motibatu ikasleak hizkuntza bereganatzeko.

#### → **Material eta ingurune errealak erabiltzea:**

Material errealak eta fisikoak erabiltzeak lagundu egiten du ikasketa-prozesuan. Ikasleek ikusi eta ukitu egin dezakete aipatzen ari diren hori.

#### **Adibidea:**

- **“Mesedez, emadazu toalla!” (benetako toalla)**  
**“Zein, gorria edo urdina?” (Bi toalla, bakoitza kolore batekoa)**  
**“Urdina, baina txikia ez, handia...” (Bi toalla urdin, tamaina ezberdinetakoak).**

Objektua ukitzeak eta erabiltzeak zentzumen guztiak aktibatzen ditu eta izenak, ekintzak eta egiturak buruz ikasten laguntzen du (ikastaroko liburua jarraitzen aritu beharrean).

- Eguneroko lanean agertuko diren gauzak erabiliko dira. Objektuak edo ekintzak ezagutzeak (norbaiti ohetik ateratzen laguntzea, arropak zintzilikatzea, janaria prestatzea eta abar) lagundu egiten du memorizatzen.
- Horri esker, ikasleek langile eta profesional gisa ikusten dute beren burua, eskolako ikasle gisa ikusi beharrean.



- Trebakuntzan espazioa eta mugimendua erabiltzeak ere lagundu egiten du hitzen, kontzeptuen eta komunikazio-beharren esanahiak buruz ikasten.



**Adibidea:**

**“Betaurrekoak behar ditut”**

**“Non daude?”**

**“Sukaldeko mahaian, agian” — Ikaslea jaiki eta sukaldera doa edo sukalde gisa izendatutako txokora eta mahai erreal bati begiratzen dio.**

**Betaurrekoak badaude: “Bai, hemen daude”**

**Ez badaude, “Ez daude mahaian”.**

- Materialak eta espazioa erabiltzea errazagoa da, lantokian bertan ikasten bada. Edonola ere, ikasgelan ere erabil daiteke eramateko erraza den materiala. Baliteke erakundeek materiala uztea ikastaroak irauten duen bitartean.
- Hitzak eta kontzeptuak argazkien edo bestelako objektuen bidez (kanpoko tokiak, janariak eta abar) sinbolizatu daitezke.
- **Ikus ariketak: UD1 “Higienea”, 2. ariketa**
- **Ikus irakaslearen oharra:** 3. Hizkuntza-irakaskuntza. 3.3. Gaia: material erreala erabiltzea: material erreala nola erabili.
- 
- **Antzerkia eta ariketa praktikoak erabiltzea:**
- Antzerkia/simulazioa eta ariketa praktikoak bereizi egiten ditugu hemen.
  - Ariketa praktiko batean, hitzak/esaldiak ekintza jakinekin lotzen dira, baina ez da egoera erreal bat behar (adibidez, toalla mahai gainean, mahai azpian, eserlekuan, ontzitegian, eserlekuaren ondoan eta abar jartzea). Norbaiti dutzatzen laguntzerakoan zer esan azaltzen duen ariketa ere ariketa praktikoa izan daiteke, rol-jokorik egin beharrik izan gabe.
  - Antzerkiak/simulazioak esan nahi du ikasleek rol jakin bat hartzen dutela; esaterako, pertsona bati dutxan sartzen laguntzen diote eta bat-batean pertsona hori gaixo sentitzen da — zer esan/egin beharko luke ikasleak?
- Ariketa praktikoek hizkuntza bereganatzen laguntzen duten bitartean, simulazioek ezagutza horiek aplikatzen laguntzen dute, aldi berean, irakaslearen autonomia eta gaitasun estrategikoak landuz eta zer esan daitekeen eta zer ez argituz.

**Ikus ariketak:** UD1 “Higienea”, 3. eta 4. ariketak, eta UD2 “Motibazioa eta mugikortasuna”, 4. ariketa.

**Ikus irakaslearen oharra:** 3: Hiztegia ikastea 3.1. Gaia: Hiztegia ikastea: hiztegia nola landu.

→ **Hizkuntza-irakasleei gaitasun profesionali buruzko oinarrizko informazioa ematea:**

- Hizkuntza-irakasleek ikasle/langileen lanbideari buruzko oinarrizko ezagutza izan beharko lukete. Hala, irakasleak hobeto uler ditzake funtzio hauek:
  - Hizketaldiaren helburu profesionala (saltzea, laguntzea, gidatzea)
  - Zer hizkuntza-erregistro erabili eta noiz erabili
  - Langileek egunean zehar egiten dituzten ekintzak ezagutzea
  - Lanbidean “jardunbide egokien” irizpide pertsonala sortzea (adineko pertsonen zaintzan jardunbide egokia da pertsonari galdetzea zerbait bere kabuz egin nahi duen edo ez, nahiz eta langileek/ikasleek esan beraiek egiten dutela denborarik ez dutelako).
  - Jakin nola sustatu daitekeen adineko pertsonen autonomia (motibazioa da gakoa, eta oso garrantzitsua da enpatiarekin lan egitea. Zaintzaileek sentikortasunez jardun behar dute adineko pertsonekin, haiei zerbait egitera animatzeko garaian eta besteentzat eta norberarentzat erabilgarriak direla konbentzitzeko).

**Ikus ariketak:** UD1 “Higienea”, 2. eta 3. ariketak eta UD2 “Motibazioa eta mugikortasuna”, 2. ariketa.

**Ikus irakaslearen oharrak:** 1. Gaitasun profesionalak. Adineko pertsonen zaintza. 1.1. Gaia: mendekotasuna eta autonomia: adineko pertsonak motibatzea

→ **Lanbide-heziketako irakasleei hizkuntza-irakaskuntzako gaitasunei buruzko oinarrizko informazioa ematea:**

- Lanbide-heziketako irakasleek ez dute zertan hizkuntzak irakastera ohituta egon; bereziki, gutxiengoaren hizkuntzei dagokienean. Adibidez, gerta daiteke ikasleek eta irakasleek hizkuntza bera ezagutzea (A1) baina gutxiengoaren hizkuntzan komunikatzen hasi beharra izatea (H2/H3).
- Hizkuntza-irakaskuntza ulertzeko modurik onena da lanbide-heziketako irakasleei gai horri buruzko trebakuntza espezifikoa ematea.
- Hala ere, lanbide-heziketako irakasleek dagoeneko badituzte erabil daitezkeen gaitasun asko, adibidez, rol-jokoak, antzerkia eta material erreala.
- Kontuan izan ikasleek dagoeneko ikasi dutena edo ikasi ez dutena, eta horri egokitu ariketekin aurrera joan ahala.
- Hizkuntza-irakaskuntza ez da hiztegia irakastea bakarrik, baina hitz edo esaldi bat ikasteak alde handia egiten du.

**Ikus ariketak:** **UD1 “Higienea”, 2. Eta 3. ariketak**

**Ikus irakaslearen oharrak:** 3. Hizkuntza-irakaskuntza 3.1. Gaia: Hiztegia ikastea: hiztegia nola landu.



→ **Kultura- eta erlijio-aniztasuna: oinarritzko informazioa:**

- Irakasleak ulertu eta onartu behar du migratzaileek agian ez dituztela bertakoen ikasketa-kondizio berdinak (eta ez dituzte horregatik epaitu behar).
- Gerta daiteke migratzailek historia pertsonal traumatikoa izatea, profesional gisa duen estatusa galdu izana edo familiako kideren bat galdu izana, harrera-herrialdean egonkortasun ekonomikorik edo sozialik ez izatea, eta abar.
- Ezberdintasun kulturalak ere badaude: denboraren kontzeptua, ikasteko modua, hartu-eman kulturalen nolakotasuna, generoen araberako rol-ereduak eta abar.
- Irakasleak trebatzeko programan, irakasleek ikasi behar dute migratzaileei laguntzen dien jarrera izaten haiek gutxietsi gabe. Horren ordeztan, ikasten ari diren gaiei balioa ematen lagundu behar diete.
- Aldi berean, irakasleek ikasleak gidatu egin behar dituzte hainbat gaitan dituzten ikuspegiak jarri aurrerakoia hartzerako, gai hauetan batez ere: genero-rolak, kultura, sexua, erlijio-aniztasuna eta abar.

**Ikus ariketak:** UD1 “Higienea”, 1. eta 4. ariketak

**Ikus irakaslearen oharrak:** 4. eremua: Simulazioak. 4.2. Gaia: kultura-aniztasuna. 4.2. Kultura-aniztasuna ikasgelan. 4.3. Gaia: erlijioa: erlijio-faktoreak kontuan hartzea rol-jokoetan.

### B 1.3. DIZIPLINA ANITZEKO HURBILKETAK GUTXIENGOAREN HIZKUNTZAK IRAKASTEKO

#### → **Faktore soziolinguistikoen arteko bitartekaritza: gehiengoaren eta gutxiengoaren hizkuntzak:**

- Askotan, gutxiengoaren hizkuntza ez erabiltzearen arazoa ez da ez jakitea, baizik eta konfiantzarik ez izatea, edo ez ulertzea edo ez identifikatzea zenbateraino den garrantzitsua erabilitako hizkuntza hartzailearentzat.
- Faktore horiengatik da hain ezberdina gehiengoaren hizkuntza bat edo gutxiengoaren hizkuntza bat ikastea.
- Faktore soziolinguistikoak gai garrantzitsu gisa irakatsi daitezke trebakuntza-garaian (adibidez, trebakuntzaren hasieran, faktore soziolinguistikoei buruzko tailer bat egin daiteke, edo ikastaroan txerta daitezke apurka-apurka).
- Horrez gain, irakasteko ariketetan txerta daitezke faktore soziolinguistikoak, batez ere gaitasun estrategikoetarako rol-jokoetan. Adibidez: gai sozialei buruz hitz egiteko hiztegia eta gramatika ikasi duzu (“Zer moduz dago zure familia?”), hitz egiten hasi zara eta puntu batetik aurrera ez duzu ezer ulertzen. Nola erreakzionatuko zenuke? Edo, beste adibide bat: gutxiengoaren hizkuntzaren hitzun natiboek gehiengoaren hizkuntzan hitz egiten dizute nahiz eta zuk gutxiengoaren hizkuntza erabili nahi duzun. Nola konbentzitu ditzakezu gutxiengoaren hizkuntzara aldatzeko?

**Ikus ariketak:** UD1 “Higienea”, 1. eta 4. Ariketak; UD2 “Mugikortasuna eta motibazioa”, 2.,4. ariketak.

**Ikus irakaslearen oharrak:** 2. Soziolinguistika: 2.1. Gaia: Gutxiengoaren hizkuntza / gehiengoaren hizkuntza: bi hizkuntzak erabiltzea komunikazio-helburuak betetzeko.

#### → **Gehiengoaren hizkuntza abantaila gisa erabiltzea eremu profesionalean:**

- Adineko pertsonak zaintzen lan egiten duten migratzaile askok harrera-komunitateko gehiengoaren hizkuntza ezagutzen dute (oinarrizko ezagutza edo, bestela, beraien ama hizkuntza bera da). Horrek esan nahi du dagoeneko ezagutzen dutela bezeroekin komunikatzeko erabil dezaketzen hizkuntza bat.
- Harrera-hizkuntza bakarra duten herrialdeekin alderatuz gero, harrera-komunitate elebidunetan hizkuntzak ikasteak erronka ezberdinak ditu, hitzun berriek dagoeneko bitza sozial eta profesionala baitute gehiengoaren hizkuntzan. Gutxiengoaren hizkuntza erabiltzera behartzen duten hizkuntza-

politika zuzenik gabe, motibazio gehigarria behar dute hizkuntza hori ikasteko eta erabiltzeko.

- Hizkuntza-ohiturak aldatzen ikastea hizkuntza bera ikastea bezain garrantzitsua izan daiteke. Horregatik, ariketa hauetan ere txertatu behar da gehiengoaren eta gutxiengoaren hizkuntzen artean lantokian dagoen harremana.
- Gehiengoaren hizkuntza ikastea abantailatsua izan daiteke eta gutxiengoaren hizkuntza bereganatzeko erabil daiteke.
- Gutxiengoaren hizkuntza-puskak ikas daitezke gai konplexuagoetan gehiengoaren hizkuntza erabilia (esaterako, gutxiengoaren hizkuntza erabil daiteke bezeroarekin jatekoa prestatzeko, eta gehiengoaren hizkuntza, berriz, erabil daiteke botika berria erabiltzeari buruz medikuak esandakoa errepikatzeko).
- Horren helburua ez da gutxiengoaren hizkuntza praktika sinbolikoarekin erlazionatzea gehiengoaren hizkuntza komunikazio-hizkuntza bakar gisa erabiltzen den bitartean. Horren ordez, gehiengoaren hizkuntzak gutxiengoaren hizkuntzaren erabilera mobilizatzen lagundu dezake, nahiz eta hizkuntzaren eremu guztiak ez kontrolatu.

**Ikus ariketak:** UD1 “Higienea”, 4. ariketa; UD2 “Mugikortasuna eta motibazioa”, 4. ariketa

**Ikus irakaslearen oharra:** 2. Soziolinguistika: 2.1. Gaia: Gutxiengoaren hizkuntza / gehiengoaren hizkuntza: bi hizkuntzak erabiltzea komunikazio-helburuak betetzeko.

#### → **Komunikazioa lantzea, gaitasun profesional gisa**

- Ikuspuntu zabal batetik landu behar da eremu profesionalean erabiliko den komunikazio-gaitasuna. Horrek esan nahi du ez dela kontuan hartu behar hizkuntzaren gramatika eta erabilera zuzena bakarrik, baita testuinguru profesionalean mezuak duen esanahia / komunikazioa ere.
- Adibidez, hitz batzuk erabiltzea nahikoa da errespetua komunikatzeko, eta, askotan, adineko pertsonekin lan egitean, esaldi osoak eta zuzenak erabili arren enpatia edo ulerkortasunik gabe esatea profesionaltasun falta gisa ikus daiteke.
- Hizkuntza-irakasleak helburu profesionalak eta hizketaldiaren arauak jakin / ikasi behar ditu.



**Ikus ariketak:** [UD2 “Mugikortasuna eta motibazioa”](#), [2. eta 4. ariketak](#)

**Ikus irakaslearen oharrak:** 1: Gaitasun profesionalak adineko pertsonen zaintzan, 1.1.

Gaia: mendekotasuna eta autonomia: adineko pertsonak motibatzea

→ **Gutxiengoaren hizkuntzak duen garrantziaz jabetuaraztea ikasleak.**

- Gutxiengoaren hizkuntza bat ikastea eta erabiltzea gehiengoaren hizkuntza bat ikasi eta erabiltzetik bereizten duten hurbilketa eta teoria pedagogiko asko daude. Garrantzitsua da bereizten dituzten faktore horiek aztertzeko denbora hartzea, hizkuntza-ikastaroaren hasieran edo ikastaroak irauten duen bitartean.
- Migratzaile askok ez dakite bizitzen/lan egiten hasi diren herrialdean gutxiengoaren hizkuntzarik dagoenik ere, ezta horrek gizartean duen funtzioa ere. Horregatik da garrantzitsua ikasleei informazio hori ematea, hizkuntzarekiko eta lantokiko hizkuntza-politikekiko jarrera positiboa eta konpromisoa lortzeko.
- Gutxiengoaren hizkuntzak duen funtzioaren ideia orokorra jasotzeaz gain, langile/ikasleek ulertu behar dute zer funtzio betetzen duen hizkuntzak lantokian, eta zenbateraino den lehentasunezko faktorea lana aurkitzeko garaian eta erabiltzaileari / bezeroari emandako zerbitzua ahalik eta kalitaterekin handienarekin ematerako garaian.
- Frogatuta dago gutxiengoaren hizkuntza hitz egiten duten hiztun zaurgarriekin (esaterako, adineko pertsonekin) hizkuntza hori erabiltzeak hobetu egiten duela hiztunak eta bere familiak jaso duten zaintzaren ‘kalitatea’ —ikus, adibidez, ‘More than just words’, Galeseko testuinguruan (ikus esteka-zerrenda B3 atalean)—.

**Ikus ariketak:** [UD1 “Higienea”](#), [1. Ariketa](#), [UD2 “Motibazioa eta mugikortasuna”](#) [4. ariketa](#).

**Ikus irakaslearen oharrak:** 2. Soziolinguistika. 2.2. Gaia: Gutxiengoaren hizkuntzaz jabetzea: gutxiengoaren hizkuntzak duen funtzioaz eta balioaz jabetzea.

## B2: TRESNA-KUTXA

### **Irakaslearen oharrak - AURKIBIDEA**

#### **Gaitasun profesionalak adineko pertsonen zaintzan.**

- 1.1. Gaia: mendekotasuna eta autonomia:** adineko pertsonak motibatzea
- 1.2. Gaia: mendekotasuna eta autonomia:** adineko pertsonen autonomia sustatzea

#### **Soziolinguistika.**

- 2.1. Gutxiengoaren hizkuntza / gehiengoaren hizkuntza:** bi hizkuntzak erabiltzea komunikazio-helburuak betetzeko
- 2.2. Gutxiengoaren hizkuntzaz jabetzea:** gutxiengoaren hizkuntzak duen funtzioaz eta balioaz jabetzea

#### **Hizkuntza-irakaskuntza**

- 3,1. Gaia: Hiztegia ikastea:** hiztegia nola landu.
- 3.2. Gaia: hizkuntzen ezagutza nola aktibatu:** ikasleen hizkuntza aktibatzea.
- 3.3. Gaia: material erreala erabiltzea:** material erreala nola erabili.

#### **Simulazioak eta rol-jokoak.**

- 4.1. Gaia: oinarriak:** zer helburu ditu simulazio/rol-joko bakoitzak?
- 4.2. Gaia: kultura-aniztasuna.** kultura-aniztasuna ikasgelan.
- 4.3. Gaia: erlijioa:** erlijio-faktoreak kontuan hartzea rol-jokoetan.

#### **Didaktikak.**

- 5.1. Gaia: hausnarketak:** ikasleekin eztabaidak nola gidatu

Irakaslearen oharrak	Gaitasun profesionalak adineko pertsonen zaintzan.
Zk.: 1.1	<b>Gaia:</b> Adineko pertsonak motibatzea
<p><b>Adineko pertsonak motibatzea</b></p> <p>Adineko pertsonengan ohikoak dira depresioa eta motibazio eza. Bakarrik bizi direnek edo harreman sozial gutxi dituztenek pairatzen dituzte gehien. Eguneroko eginbeharrak egiteko eta bestelako jarduerak egiteko gogo eta pasioa galdu egiten dute (jatea, garbitzea, kalera ateratzea, beste pertsonekin hitz egitea eta abar).</p> <p>Zaletasunek, inguruneak, harreman sozialek eta kanpo-estimulazioak eragin handia dute motibatzekeo garaian. Familiarekin duten kontaktua mugatua denean, zaintzaileekin duten kontaktua kritikoa bihurtzen da, bereziki egunero ikusten duten horien kasuan.</p> <p>Adineko pertsonen zaintzan, kontuan hartu beharreko printzipio batzuk daude:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Adineko pertsonari galdetu beren eguneroko bizitzari buruz:</b> haien ongizatea, lo egiteko ohiturak, jatorduak...</li> <li>● <b>Hainbat gairi buruz hitz egin:</b> eguraldia, familia, telebistako saioak, mediku-bisitak, jarduerak...</li> <li>● <b>Haien pentsamenduak eta nahiak garrantzitsuak direla ikusarazi.</b> Horretarako, galdetu egiten diegu zer jan duten, zer arropa jantzi dituzten edo zer telebista-saio ari ziren ikusten, zer irakurri duten egunkarian...</li> </ul> <p>Zenbait kasutan, ez diote ezeri erantzungo edo ez dute interesik erakutsiko; hori dela eta, haien motibazioa sustatzeko lana zaintzailearen eskutan geratzen da. Hona hemen egoera horietan erabil daitezkeen estrategia batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Feedback positiboa.</b> Positiboa den edo ongi egin duen zerbait aintzatetsi, adibidez “aurpegi ona duzu gaur”, “zure hanka hobeto mugitzen duzu gaur”.</li> <li>- <b>Gustuko duten zerbaiti buruz edo etorkizunean egin ahal izango dutenari buruz hitz egin haiekin.</b> Adibidez, asteburuan iloba datorrela aipatu, arratsaldean kartetan jolasteko proposamena egin edo iluntzean telebista-saio bat ikusteari buruz hitz egin.</li> <li>- <b>Norbaiti ongi sentiarazteko zerbait proposatu.</b> Adineko pertsona bat triste dagoela ikusiz gero, proposatu ongi sentiaraziko dion zerbait egitea: paseatzera joan, jantzi, dutxatu, joko batekin jolastu, kafe bat hartzera joan.</li> <li>- <b>Ez arbuia tristura, mina eta antzeko sentimenduak.</b> Sentimendu horiek guztiak errespetatu egin behar dira eta zaintzaileak onartu egin behar ditu; irtenbide positiboak proposatu behar ditu.</li> </ul>	



Irakaslearen oharrak	Gaitasun profesionalak adineko pertsonen zaintzan.
Zk.: 1.2	<b>Gaia:</b> Mendekotasuna eta autonomia
<p><b>Adineko pertsonen autonomia sutatzea</b></p> <p>Pertsona batek mendekotasuna badu ere, paziente horren ingurunea oso garrantzitsua da, eta jarduera batzuetan izan dezakeen independentziari eusten edo hura sustatzen lagundu dezake.</p> <p>Autonomia hori sustatzea da zaintzailearen egitekoetako bat. Horretarako, jarraibide orokorra hau da: “Ez egin inoiz pertsona horrek bere kabuz egin dezakeen hori”. Zaintzaileak justu kontrakoa egin behar du, hau da, adineko pertsona animatu egin behar du, eta lagundu egin behar dio gauzak bere kabuz egiten.</p> <p>Komunikazioa eta pazientzia ezinbestekoak dira hori lortzeko.</p> <p>Komunikazioaren bidez jakingo dugu pertsona bakoitzak zer egin dezakeen eta zer ez. Pertsona batek zerbait egiteko gaitasunari buruzko zalantzak badituzu, hasi galdera hauekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Hori egin dezakezu?”</li> <li>- “Zuk bakarrik egin dezakezu hori?”</li> <li>- “Haragia nik mozten badut, zuk jan dezakezu zure tenedorearekin?”</li> </ul> <p>Erabili motibatzeke esaldiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Saia zaitez zu bakarrik!”</li> <li>- “Saiatu honela!”</li> <li>- “Poliki egin... Ez dago presarik.”</li> </ul> <p>Lana zuk zeuk egitea azkarragoa bada ere, ez ezazu egin, adineko pertsonen autonomiari ahalik eta luzaroen eusteko.</p>	

Irakaslearen oharrak	Soziolinguistika.
Zk.: 2.1	<b>Gaia:</b> Hizkuntza ofiziala / gutxiengoaren hizkuntza

**Bi hizkuntzak erabiltzea komunikazio-helburuak betetzeko.**

Gutxiengoaren hizkuntzek izen hori hartzen dute hizkuntza hedatuago eta indartsuagoekin batera bizi direlako. Gaur egun, gutxiengoaren hizkuntza bat duten eskualdeetan bizi diren ia gehienek, guztiek ez badira, estatuko gehiengoaren hizkuntza ere ezagutzen dute. Horrek ez du esan nahi hizkuntza harekin zeuden arazo guztiak konponduta daudenik. Alderantziz, gerta daiteke ama hizkuntza gisa gutxiengoaren hizkuntza duen pertsonak hizkuntza horretan komunikatu nahi izatea. Izan ere, informazioa eraginkortasun handiagoz helarazi dezake pertsona horrek. Are gehiago, gutxiengoaren hizkuntza erabiltzeak komunikazioa sendotu dezake, eta elkarrizketan parte hartzen duten pertsonengan konfiantza eta harreman estuagoa sor dezake.

Horregatik da garrantzitsua gutxiengoaren hizkuntza ikasten ari den zaintzailea hitzak eta esaldiak hasieratik aplikatzen hastea, harreman estuagoa eta konfiantza handiagokoa sortzeko hasiera-hasieratik, hizkuntza-gaitasun handiagoa lortu arte itxaron beharrean.

- Gai jakin batzuetan, beharrezkotzat jo dezakezu esanahia ahalik eta zehatzen eta ahalik eta sentikortasun handienarekin helaraztea. Gai horien artean daude, besteak beste, **sentimenduak eta bizitzako gertaera garrantzitsuak, osasun-gaiak eta denborari, datari eta tokiei buruzko informazio espezifikoa.**
- Kasu batzuetan, komunikazioak argia eta zehatza izan behar du, eta, beraz, gutxiengoaren hizkuntza erabiltzeak behar hori mugatu dezake.

Horrek ez du esan nahi egoera horietan komunikazioa hizkuntza batean edo bestean bakarrik egin behar denik, nahiz eta hala egitea komeni dela uste izaten dugun maiz. Pentsatu behar da bi hizkuntzak erabiltzea gaiari buruzko irudi osatuagoa emateko bidea dela, hizkuntza bakoitzak ematen dituen ñabardurak aprobetxatuz. Bi hizkuntzak modu malguan erabiltzea abantaila izan daiteke kasu honetan.

**Aholkua: Rol-jokoak lagundu egin dezake estrategia hauek aplikatzeko garaian.**

Irakaslearen oharrak	Soziolinguistika.
Zk.: 2.2	<b>Gaia:</b> Gutxiengoaren hizkuntzaz jabetzea
<p><b>Gutxiengoaren hizkuntzak duen funtzioaz eta balioaz jabetzea</b></p> <p>Aniztasun linguistikoaren garrantzia areagotu egin da azken hamarkadetan. Giza eskubideen aldeko kanpainak lagundu dute horretan, barruan sartzen baitira eskubide linguistikoak eta kultura-eskubideak. Eskualdetako edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Aldeko Europako Gutuna da Europan gutxiengoaren hizkuntzen aurrerabidearen adibide bat. Beste erakunde batzuek ere (ELEN eta NPLD, esaterako) helburu horien alde egiten dute. Estatu mailan, eskualdeetako gutxiengoaren komunitateetako biztanleak gero eta gehiago arduratzen dira gutxiengoaren hizkuntza biziberritzeko ahaleginak egiteaz. Ez da berdina gertatzen migratzaile askorekin, hala ere, gutxiengoaren hizkuntzaren berri estatuko erakundeen bidez jasotzen baitute. Askotan, horrek esan nahi du ez zaiela azaltzen zer hizkuntza gehiago dauden eta horiek gizartean eta esparru profesionalean zer funtzio betetzen dituzten. Berdin gerta daiteke gutxiengoaren hizkuntza duen komunitatera datozen migratzaileen kasuan.</p> <p>Horrenbestez, gutxiengoaren hizkuntzaren alderdi kulturalaz eta linguistikoez jabetzea ezinbesteko tresna da, eta klaseetan eta jarduera praktikoetan txertatu behar da. Jarduera horiek hasieran egin daitezke, baina gomendatzen da ikasturtean zehar hizkuntzaren inguruko gaiak txertatzea eta garatzea. Gutxiengoaren hizkuntza erabiltzen duten lehen aldietan ulertuko dituzte egoera asko hiztun berriek.</p> <p>Hizkuntzari buruz jabetzeko, ariketa hauek egin daitezke:</p> <p>Gutxiengoaren hizkuntzari buruzko informazioa: <b>historia, kultura, lege-egoera, bizitza publikoan duen presentzia</b> (komunikabideak, hezkuntza, lana eta abar). Kasu askotan, hiztunak ez direnek ez dakite ezer gutxiengoaren hizkuntzaren egoerari buruz. Hizkuntzaren errealitateak interesa piztu ohi du, eta komunitateko beste kide batzuegandik jasotako hizkuntzarekiko jarrera negatiboari aurre egiten die. Halaber, beren hizkuntzei buruz ere gehiago ikasteko eta ulertzeko modu bat da, maiz horiek ere gutxiengoaren hizkuntzak izaten baitira.</p> <p><b>Hizkuntzak biziberritzeko eta normalizatzeko neurriak eta politikak:</b> Genero- edo arraza-berdintasuna ez bezala, publikoak askotan ez daki hizkuntza-eskubideak ere badaudela. Garrantzitsua da ulertzea egungo gizartean gutxiengoaren hizkuntzari buruz dagoen adostasun soziala eta politikoa, eta norberak bere burua adostasun horren parte ikustea, baita migratzaile izanda ere, hizkuntza-politikaren “biktima” izan beharrean.</p> <p><b>Hizkuntza-ahalduntzea</b> (norberarenganako konfiantza, aurreiritziak lantzea eta abar): Gutxiengoaren hizkuntzek hiztunak ahalduntzea ezinbestekoa dute, biziberrituko badira. Hizkuntza ez erabiltzearen arrazoiak arrazoi sozial eta historiko konplexuekin daude erlazionatuta, eta hura erabiltzeko baimenik ez dutela sentiarazten diete (komunitatean kanpotar sentitzea); hizkuntza landatar eta tribal bat hitz egitean arraro sentitzen dira edo kausa abertzalearekin bat egiteko beldurra dute. Alderdi horiek landu eta gainditu egin behar dira jendeak hizkuntza ikastea eta erabiltzea nahi badugu.</p>	

**Hizkuntza-aniztasuna** (hizkuntza-ekologia, identitatea, kultura-ondarea): Lagungarria da ulertzea gutxiengoaren hizkuntzak babesteko ekintzak ez direla tokiko gaia bakarrik; mundu osoko ondarea eta ekologia gordetzeko nazioarteko mugimenduekin dute lotura. Mundu gero eta globalizatuagoan, gero eta garrantzitsuagoak dira tokiko eta estatuko gaiak.

**Dialektoak eta hizkuntza-erregistroak:** Gehiengoaren hizkuntzekin gertatzen ez diren gai oso espezifikoak gertatzen dira gutxiengoaren hizkuntzekin. Europako gehiengoaren hizkuntza gehienak XIX.mendearen amaieran estandarizatu ziren eta derrigorrezko hezkuntzan eta idatzizko komunikazioetan orokortu ziren. Gutxiengoaren hizkuntzen kasuan, prozesu hori askoz beranduago gertatu zen, hainbat bidetatik, eta beste kasu batzuetan ez zen gertatu. Hori dela eta, hizkuntza-lezio estandarrean irakatsitakoetatik eta pertsona natiboek erabiltzen dituztenetatik ezberdinak diren hitzak erabiliko ditugu. Gai hori lantzeko tailerretan, jarrera positiboa nola landu ikas dezakegu eta aberastasun gisa ikusi eragozpen gisa ikusi beharrean!

#### **Nola txerta ditzakegu gai horiek ikastaroan?**

- Baliabide ireki asko erabil ditzake gai horiek lantzen dituen irakasleak (Internet, telebista-saioak, liburuxkak).
- Elkarte askok boluntarioak eskaintzen dituzte hizkuntzaz jabetzeko tailerrak edo hitzaldiak emateko.
- Horrez gain, talde bakoitzaren behar jakinetara egokitutako hizkuntzaren ahalduntzerako edo jabetzeko programa bereziak dituzten hizkuntza-hornitzaileak ere badaude.
- Gonbidatu profil jakina duten pertsonak haien testigantza aurrez aurre eman dezaten. Pertsona horiek izan daitezke, adibidez, gutxiengoaren hizkuntza hitz egiten duen adineko pertsona, hizkuntza ikasi duen migratzailea, adineko pertsonen zaintza-zerbitzu baten zuzendaria, gutxiengoaren hizkuntzan hitz egiten duen pertsona famatua, eta abar.

#### **Lehentasunak hautatzea:**

Ez dira zertan gai guztiak landu talde guztietan. Irakasleak erabaki behar du zein gai den bereziki beharrezkoa bere taldearentzat. Gutxiengoaren hizkuntza baten soziolinguistika berrikustek ez du zentzurik ikasleak lantokian hizkuntza-aldaketa egitera ausartzen ez badira.

Irakaslearen oharrak	Hizkuntza-irakaskuntza
Zk.: 3.1	<b>Gaia:</b> Hiztegia ikastea
<p><b>Hiztegia nola landu</b></p> <p>Pertsona askok uste dute hizkuntza bat ikastearen zatirik handiena hiztegia ikastea dela.</p> <p>Alabaina, hitz horiek egitura erabilgarrietan txertatzea da hiztegia erabiltzeko modurik onena. Hori dela eta, hizkuntza-irakaslearen zeregina da informazioa erregulatzea eta ikasitakoa praktikatzeko aukerak eskaintzea (ikasi diren gauza berriak dosi txikitik bereganatu behar dira praktikaren bidez).</p> <p>Hiztegia argazkien edo itzulpenen bidez aurkeztu eta gero, hainbat hurbilketa bidez landu daitezke. Adibidez: Zer? Non? Plurala...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer ikusi duzu gaur?</li> <li>• Loreak dituen zuhaitza ikusi dut gaur.</li> <li>• Eta non ikusi duzu loreak dituen zuhaitz hori?</li> <li>• Klean.</li> <li>• Eta parkean ikusi al duzu loreak dituen zuhaitzik?</li> <li>• Ez, parkean ez, oraindik ez dago lorerik.</li> </ul> <p>Kasu horretan, zuhaitza, lorea eta parkea lirateke hitz berriak. Lehendabizi, hiru hitzak ikasten ditugu hiru esaldi, galdera eta erantzunetan (horiek dagoeneko ezagutzen ditu ikasleak). Hori hizketaldi batean ere aplikatu daitezke, adibidez:</p> <p>“Imajinatu zaintzen ari zaren pertsonarekin zaudela, eta pertsona hori paseatetik bueltan etorri dela” Zer ikusi duen galdetu diozu, eta zuhaitz batean ikusi duen loreari buruz hitz egiten dizu. Erabil itzazu orain arte ikasitako galderak eta hitzak”.</p> <p>Ariketa horren emaitza bat hau izan daitezke:</p> <p>A: Juanita, zer moduz paseoa? Zer ikusi duzu bidean?  B: Zuhaitzak.  A: A, ze ondo. Loretan zeuden zuhaitzak dagoeneko?  B: Bai, zuhaitzek loreak zituzten!  A: Eta parkeko zuhaitzek?  B: Ez, parkekoek ez, oraindik ez.</p> <p>Horren ondoren, ikasleei eska diezaiekegu istorioa Juanitaren ikuspegitik, zaintzailearenetik eta abar kontatzeko.</p> <p>Kasu honetan, helburua da “lorea” eta “zuhaitza” hitzak ikastea, aurretik ikasitako esaldi labur batzuekin lotuta.</p> <p>Une horretan, irakasleak gidatzen du hiztegiaren erabilera, ikaslearen autonomia sustatzen du eta, aldi berean, izan dezaketen arduari erantzuten die.</p> <p>Oharra: ariketak ez du balio ariketatik kanpo dauden hitzak eta egiturak azaltzeko. Are gehiago, ikasteko prozesua ez da informazioa pilotzea, baizik eta informazio hori bereganatu eta lantzea, era autonomoan eta praktikoan erabiltzeko gaitasuna izateko.</p>	

Irakaslearen oharrak	Hizkuntza-irakaskuntza
Zk.: 3.2	<b>Gaia:</b> Dagoeneko badagoen ezagutza aktibatzea

### **Hizkuntzen ezagutza nola aktibatu**

Gutxiengoaren hizkuntzen kasuan, pertsona asko bizi daitezke hizkuntza batez inguratuta baina ezer ez dakitela pentsatu.

Hala ere, pertsona horien sormen eta sen inkonszientea aktibatuz eta probatzeko tartea utziz gero, askotan harrigarria da ikustea zenbat hiztegi eta ezagutza azaleratzen den.

Irakasle baten kasuan, egin beharreko lehen urratsa da jakitea ikasleak noiztik bizi izan diren hizkuntza hori hitz egiten den eremuan. Ezberdintasunak daude beste kontinente batetik gutxiengoaren hizkuntza duen komunitatera duela bi hilabete iritsi den pertsona baten eta bi urtez edo gehiagoz komunitate horretan bizi den pertsonaren artean. Irakasleak galdetu egin behar du ikasleren batek lehenagotik zerbait dakien. Adibidez, janariari buruz hitz egitean, lehen urratsa da ikasleei galdetzea zer janari (edari, arropa, kirol) izenda ditzaketen gutxiengoaren hizkuntzan. Erantzunen zain geratu eta erantzutera animatu, nahiz eta erantzun zuzen eta “ofiziala” eman ez.

Berdina egin daiteke komunikazio-egoera konplexuagoen kasuan. Adibidez, adineko pertsonak zaintzen dagoeneko lan egiten dutenei eska diezaiekegu gainerakoei azaltzeko zer esaten duten norbait eserleku batetik altxatzen dutenean. Gutxiengoaren hizkuntza hitz egiten den tokian lan egiten duten pertsona askok gutxiengoaren hizkuntzako hitz edo esaldi laburrak erabiltzen dituzte, konturatu gabe askotan.

Lehen urratsa beti izan beharko litzateke “zerbait” dakiten horiei dakitena azaldu dezatela eskatzea eta hala egiten jarrai dezatela animatu. Norbaitek dakiena azaltzen badu, gainerakoak ere berdin egitera ausartuko dira. Kasu horretan, irakaslearen egitekoa da jendeari dakiten horretaz jabetzen laguntzea eta ahalduntzea.

Urrats hori egin eta gero, egitura eta hiztegi gehiago azaldu ditzake irakasleak, eta ikasleek aipatutakoak testuinguru eta esaldi jakinetan kokatu.

Irakaslearen oharrak	Hizkuntza-irakaskuntza
Zk.: 3.3	<b>Gaia:</b> Material erreala erabiltzea

### Material erreala nola erabili

Hizkuntza-irakasle askorentzat deserosoa, lotsagarria edo hizkuntza-irakaslearen ohiko ikusmoldearekin guztiz bat ez datorren jokabidea da material erreala erabiltzea.

Hala ere, ikasleen aurrerapenerako eta autonomiarako abantaila handia da material erreala erabiltzea, baita rol-joko arrakastatsiak lortzeko ere. Hori kontuan hartuta, komenigarria litzateke hizkuntza-klase bakoitzean ahalik eta material errealik gehien erabiltzea.



#### 1. Material erreala. Mugikortasuna, “Kalera ateratzea”

Lagungarria da materiala antolatuta, garbi eta kutxatan gordeta izatea, liburuekin eta koadernoekin batera.

Hizkuntza-ikastaroa lanbide-heziketako zentroan edo lantokian egiten bada, litekeena da material batzuk bertan egotea dagoeneko. Hala ere, ikastaroa ematen den gelara eraman behar da materiala, eta antolatuta izan, edo dagokion tokira itzuli erabili eta gero, ikastaroa egiten ari den gela beste zerbaiterako erabiltzen den kasuan.

Zahar-egoitzetan eta lanbide-heziketako zentroetan ere, objektu pertsonalak izan ohi direnak (arropak, janaria edo kosmetikoak, esaterako) kanpotik ekarri behar izaten dira gehienetan. Irakasleek kontuan izan behar dute material-mota hori prestatzea ikastaroaren zati ere badela, eta denbora eta antolamendua beharrezkoak direla zer behar dugun, non lortu, nola gorde, nola prestatu, gelara nola eraman eta handik nola atera pentsatzeko.

Irakaslearen oharrak	Simulazioa eta rol-jokoak
Zk.: 4.1	<b>Gaia:</b> Oinarrizko jarraibideak
<p><b>Zer helburu ditu simulazio bakoitzak?</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Simulazioak eta rol-jokoak egin aurretik, lagungarria da ikasleei ariketaren helburuak eta formatua azaltzea.</li> <li>• Simulazioak eta rol-jokoak erabiltzen dira esaldiak eta hiztegia eguneroko erabilerarekin lotzeko.</li> <li>• Ariketa horren bidez, ikasitako hizkuntza-puskak lehen aldiz txerta daitezke beste komunikazio-egoera batean, lehendik ezagutzen den egoera bati elementu berriak gehitzen zaizkionean.</li> <li>• Simulazioa eta rol-jokoak ez dira antzerkia, baina sormena behar dute egoera bakoitzerako hizkuntza-gaitasun estrategikoak sortzeko edo garatzeko. Ikasle bakoitzak bere irtenbide propioak eman ditzake komunikazio-egoera baten aurrean, ezagutzen dituzten elementuekin (edo bestelako tresna soziolinguistikoez lagunduta, adibidez, errepikatu mesedez, hitz egin gaztelaniaz mesedez, keinuak eta gorputz-hizkuntza erabilia eta abar).</li> <li>• Pertsona asko lotsatu egiten dira rol-jokoak egiterakoan. Taldean giro ona sortzeko eta lotsa gutxitzeko lan egin.</li> </ul> <p>Egoera horiek kudeatzeko estrategia batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Simulazioak ongi azaldu behar dira. Ikasleei azaldu egin behar zaie zein den helburua eta zer egiteko eskatzen zaien. Hainbat elementu konbinatu eta hizketaldi oso bat H2 hizkuntzan egitea izan daiteke helburua (adibidez, garbiketa-prozesu osoa azaltzea, erosketa-zerrenda egitea eta abar), edo gauza laburrak edo zehatzak azaltzea (adibidez, gela baten alboan zarata bat entzuten duzu eta ziurtatu nahi duzu ez dela ezer larririk gertatu). Bi kasuetan, simulazioa behar bezala azaldu behar zaie ikasleei, eta zehatz azaldu behar zaie haiek zer egitea nahi duzun.</li> <li>• Umore onez aritu, eta txaloak erabili ideia onak saritzeko.</li> <li>• Ikasleek ariketa horretatik eskuratuko dutena bakoitzaren arabera da, batzuek esaldi konplexuak egingo dituzte, beste batzuek forma berriak erabili edo pertsonak bata bestearengandik bereizi. Errepikatu nor dagoen rol-jokoan eta zer egin behar duten: “Eta orain berriz egingo dugu, baina esaldi osoak erabilia: “mahaia garbitu, orain komuna garbitu, zorua garbitu” eta abar esan beharrean, esaldiak erabili, adibidez “Lehendabizi, mahaia garbituko dut, gero zorua garbituko dut, eta, gero, komuna garbituko dut”.</li> </ul>	



Irakaslearen oharrak	Simulazioa eta rol-jokoak
Zk.: 4.2	<b>Gaia:</b> Kultura-aniztasuna
<p><b>Kultura-aniztasuna ikasgelan</b></p> <p>Ikasketa-prozesuan zehar, jatorrizko kulturaren eta ikasleen kulturen ezaugarriak agerian geratuko dira.</p> <p>Kontuan hartu beharrekoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kultura askotan, ez da onargarria besteen aurrean tontakeriak egitea, norberaren akatsak erakustea edo beste norbaiti zuzenean begiratzea. Halakoetan, zenbaitentzat deserosoa izan daiteke ariketan parte hartzea.</li> </ul> <p>Irakaslearen estrategia lantzeko tresnak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Malgutasuna eta enpatia. Norbaitek, hasiera batean, rol-jokoetan edo jardueretan parte hartu nahi ez badu, irakasleak denbora bat utzi behar dio parte hartzeko gogoia etorri arte. Ikasle bakoitzaren kultura-ezberdintasunak kontuan hartu, eta ez behartu inor deseroso sentiarazten duen zerbait egitera. Baliteke aurrerago parte hartzea, edo ariketa apur bat aldatzearekin nahikoa izatea.</li> <li>• Rol-jokoak gustuko ez badituzu, beste aukera batzuk bila ditzakezu, adibidez, gaiari buruzko bideoak.</li> <li>• Rol-jokoak batera egiteko moduan antolatu, talde osoa bakoitzaren ariketari begira egon beharrik izan gabe.</li> <li>• Kontuan hartu beharreko beste gai bat da ikasgela barruan dauden botere-harremanak. Ez da utzi behar harreman horiek jardueran eragina izan dezaten.</li> <li>• Zenbait kulturatan, ikastea jarduera guztiz akademikoa da, eta rol-jokoak eta antzekoak ez dira seriotzat hartzen. Hori dela eta, behar-beharrezkoa da rol-jokoen helburua azaltzea. Adibidez: simulazio honetan, norbaiti jaten lagundu behar diozu, eta “baimena eskatzea” egitura erabiliko duzu. “Haragia ebakiko dizut? Ur pixka bat ekartzea nahi duzu?” Halaber, azaldu behar duzu rol-jokoetan gramatika eta hizkuntza-egitura ere ikasten dela, baita praktikatu ere, eta gorputz-hizkuntza positiboa eta profesionala eta enpatia erabiltzen ere ikasten dela.</li> </ul>	

Irakaslearen oharrak	Simulazioak eta rol-jokoak.
Zk.: 4.3	<b>Gaia:</b> Erlijio-faktoreak
<p><b>Erljioa</b></p> <p>Simulazioek eta rol-jokoek ikasleen arteko kontaktu fisikoa areagotzen dute. Hori kontuan hartu behar da taldeak rol-jokoetarako antolatzean.</p> <p>Musulman batzuen kasuan, adibidez, debekatuta dago gizonen eta emakumeen elkar ukitzea familiakoak ez badira.</p> <p>Gerta daiteke bezeroek genero bateko zaintzaileak bakarrik hautatzea zaintzaile gisa. Edonola ere, trebatze-taldeetan genero eta erlijio ezberdinetako pertsonak daudenean, irakasleak estrategiak bilatu behar ditu guztien beharrak eta ohiturak errespetatzeko.</p> <p>Simulazio-taldeak antolatzerakoan, errespetatu erlijio-arauak eta kontuan hartu itzazu. Oso ohikoa da emakumeen eta gizonen halako jarduerak elkarrekin egin nahi ez izatea. Irakasleak estrategiak izan behar ditu egoera horiek bideratzeko.</p> <p>Hauek dira estrategia horietako batzuk:</p> <p>Erljio-ohiturak askeak dira eta ez dira epaitu behar. Epaketarik egiten ez den espazioa bihurtu behar da ikasgela, eta aniztasuna eta onarpena sustatu behar dira.</p> <p>Ikastaroaren dinamiken barruan erlijio-ohiturak onartzeko eta egokitzeko bideak bilatu behar dira.</p> <p>Norbaitek rol-jokoan parte hartzen ez duenean, ikaslearen beharrak zein diren jakin eta jarduera horien arabera egokitzea da biderik egokiena; gerta daiteke, adibidez, emakumeak emakumeekin eta gizonak gizonekin taldekatu behar izatea. Ez pentsatu gauza berdinek talde guztientzat balio dutenik, eta ikasleei galdetu nola lan egin nahi duten.</p> <p>Taldearen ezaugarriak direla-eta jarduera hau ezin bada egin, jarduerak bideo batean ikus daitezke, eta hizketaldiak edo esaldiak bideoarekin praktikatu daitezke.</p>	

Irakaslearen oharrak	Didaktikak.
Zk.: 5.1	<b>Gaia:</b> Eztabaidak nola gidatu
<p><b>Ikasleekin eztabaidak nola gidatu</b></p> <p>Diziplina anitzetako hurbilketak erabilita, balioa ematen zaio ikasleek hizkuntza ikasteko prozesuari ekarri ahal dioten ezagutzari.</p> <p>Horretarako aukera bat da hasi aurretik eztabaida bat sustatzea, ikasleek aurretiaz duten ezagutza zenbatekoa den ikusteko. Adibidez, “Lan egin duzue noizbait dementzia duen pertsonaren batekin? Nola hitz egiten diozu lehen aldiz Alzheimerra duen norbaiti?” eta abar. Utzi denbora eztabaidatzeko eta ikasle bakoitzak bere ikuspuntua edo esperientzia azaltzeko.</p> <p>Eztabaida ideia-zaparrada azkar bat izan beharko litzateke. Ikasle bakoitzak zerbait esan dezake labur, adibidez, galdera bati erantzun diezaioke, esaterako “Zer da zaintzen duzun pertsona horretaz gehien gustuko duzuna?” Bestela, eztabaida luzea izan daiteke, adibidez “Dementziaren kasuan, pertsonaren batek bortizkeriaz jokatu du zurekin? Halako zerbait gertatu bazaizu, nola erreakzionatu zenuen?”</p> <p>Bi kasuetan, argi izan behar dugu zenbat denbora erabiliko dugun horretarako eta saio horretan zer helburu lortu nahi dugun (5 minutu, 20 minutu, eta abar). Ikasleei hasiera-hasieratik azaldu behar diegu eztabaidarako dagoen denbora eta erabiliko den formatua. Esaterako, “Ez pentsatu gehiegi, bota ideiak/hitzak/esaldiak/esperientziak” edo “Hartu tarte bat gaiaz pentsatzeko, eta, gero, bakoitzak bere esperientzia kontatuko du”.</p> <p>Halaber, ikasleak gidatu ditzakegu: “Kontatu gehiago horri buruz” edo “nola izan zen hori...” edo “oso ongi, nahikoa da horrekin” edo “nahikoa da bi edo hiru hitz esatea” edo “bota ideiak”, “gehiegi pentsatu gabe” eta abar.</p> <p>Zenbaitetan, egoera zailak agertzen dira, gaiak emozionalki okerragotu egiten ditu ikasleak, eta eztabaida-denbora luzatu egiten da.</p> <p>Kasu horietan, aurrera egin behar duzu arin, iraingarri suertatu gabe. Adibidez, kasu hauetan:</p> <p><b>1. Ikasleak haien artean eztabaidatzean:</b></p> <p>Guztien iritziekin enpatia eta errespetua izan (iritzi horiek gure irizpideen kontrakoak ez direnean). Inor ezin da baztertu arraza, genero, erlijio edo antzeko arrazoiengatik. Irakasleak ziurtatu behar du iritzi guztiak zilegi direla eta jakin behar du eztabaida bat nola amaitu. “Oso ondo, zure iritzia argi azaldu duzu, orain, hurrengo ariketarekin hasiko gara” edo “hori ezin dugu orain konpondu, klasea eta gero agian” edo “atsedenaldian edo kafe bat hartzean eztabaidatzen jarraitu dezakezue” eta abar.</p>	

## **2. Pertsona (edo talde) batek dominatzen du klase-ordua**

Feedback positiboa eman “Mila esker, oso ongi azaldu duzu, interesgarria izan da” (faltsua izan gabe) edo “gaur ez dugu denborarik horri buruz gehiago hitz egiteko” eta abar. Irakasleak erabaki behar du noiz sartu eztabaidan, falta den denboraren arabera, eta noiz eten behar den eztabaida. Saioaren kontrola galtzen ari zarela uste baduzu, arin eta errespetuz aldatu behar duzu jarduera.

## **3. Hausnarketa, itu-hizkuntza ez erabiltzeko aitzakia:**

A1-A2 mailako taldeetan hausnarketa eta eztabaidak H1 edo AH1 hizkuntzan egiten direnez, ikasle batzuk eroso sentitzen dira hausnarketa egiten edo behin eta berriro saiatzen, haientzat askoz errazagoa delako H1 hizkuntzan hitz egitea itu-hizkuntzan ariketak egitea baino. Halakoetan, irakasleak umorea, enpatia eta zorroztasuna erabili behar ditu ikasleak hurrengo ariketara bideratzeko.

## **4. Emozioak eta esperientziak agertzen direnean**

Adineko pertsonen zaintza eta immigrazioa ez dira eztabaidatzeko gai errazak. Gerta daiteke ikasleek zailtasunak izatea gai horiek azaltzen direnean. Halakoetan, irakasleak egoera aztertu behar du. Zenbait kasutan saioa birbideratu eta hortik jarraitu daiteke. Izan ere, ikasleen emozioei eta esperientziei buruzko xehetasunak onuragarriak izan daitezke taldearentzat. Garrantzitsua da irakasleak egoera horiek baloratzen eta kudeatzen jakitea.



### B.3 ESTEKA-ZERRENDA / MATERIALA

- Language for Work: Europako ikasketa-sarea, lanarekin erlazionatutako hizkuntza-garapena lantzen duten profesionalentzat

<https://languageforwork.ecml.at/>

- Language for Work – Tools for professional development: Heldu migratzaileei eta gutxiengo etnikoetako pertsoneri gehiengoaren hizkuntza lan-eremuan irakasteko alorrean garapen profesionala sustatzen duen proiektua.

<http://www.ecml.at/ECML-Programme/Programme2016-2019/Adultmigrants/tabid/1858/language/en-GB/Default.aspx>

- Szenario metodoa (alemanez):

[http://www.netzwerk-iq.de/fileadmin/Redaktion/Downloads/IQ\\_Publikationen/Thema\\_Sprachbildung/BD\\_Szenarien\\_2014\\_web.pdf](http://www.netzwerk-iq.de/fileadmin/Redaktion/Downloads/IQ_Publikationen/Thema_Sprachbildung/BD_Szenarien_2014_web.pdf)

-The Network "Integration through Qualification" (IQ)

<http://www.netzwerk-iq.de/network-iq-start-page.html>

Soziolinguistika ezagutzea / aplikatzea:

- TELP (konfiantza lantzeko tailerrak)

<https://www.slideshare.net/ATC/fonamentaci-del-telp-taller-despai-lingstic-personal-presentation>

Plataforma per la Llengua: katalana kohesio soziala lortzeko tresna gisa sustatzen duen erakundea.

[http://www.plataforma-llengua.cat/que-fem/ambits-de-treball/en\\_conscienciacio-linguistica/](http://www.plataforma-llengua.cat/que-fem/ambits-de-treball/en_conscienciacio-linguistica/)

EUSLE, euskararen ahozko erabilera sustatzeko metodologia:

<http://www.soziolinguistika.eus/en/node/2195>

<https://www.bangor.ac.uk/cohabs/newyddion/mae-methodoleg-eusle-oddiddordeb-yng-nghymru-31055>

H. Armentia, A. Labaka, aurkezpena COMBI Multiplier Ekitaldian (euskaraz):

[https://padlet-uploads.storage.googleapis.com/202596697/c63c9ed2786b89cd3eac70f23f618c0e/H\\_Armentia\\_elhuyar\\_aurkezpena\\_presentation\\_pptx.pdf](https://padlet-uploads.storage.googleapis.com/202596697/c63c9ed2786b89cd3eac70f23f618c0e/H_Armentia_elhuyar_aurkezpena_presentation_pptx.pdf)

Eskuldetako edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Aldeko Europako Gutuna:

<https://www.coe.int/en/web/european-charter-regional-or-minority-languages>

Galeseko gobernua "More than just words"

<https://gweddill.gov.wales/docs/dhss/publications/160509more-thanen.pdf>

## C. ADINEKO PERTSONEN ZAINZAREN ALORREAN, DIZIPLINA ANITZEKO HURBILKETAK ERABILTZEN DITUZTEN ARIKETEN DESKRIBAPENA

Kapitulu honetan, bi gai zehatzei buruzko ariketa-unitateak deskribatuko ditugu, irakasleek erabil ditzaten. Bi unitate landuko dira: mugikortasuna eta higiene pertsonala. Ikasleen mailaren arabera, 6 eta 20 ordu bitarteko irakaste-denbora beteko dute. Unitateetan hainbat hurbilketa metodologiko azaltzen dira, eta, hala, irakasleek antzeko ariketak sor ditzakete beste gai-eremu batzuetan. Unitate bakoitzarekin batera ariketa bat edo gehiago erakusten dituen bideo bat dago.

Kapitulu honen helburua:

Eguneroko egoeratan oinarritutako ariketak ematea.

Material eta ekintza errealek itu-hizkuntza berehala erabiltzen hasteko eta feedback positiboa lortzeko prestatzen dute ikaslea, eta horrek norberaren konfiantza eta motibazioa areagotzen ditu.

Horrez gain, gutxiengoaren hizkuntza ikasten hasteko lasterbide bat eskaintzen du. Laguntza behar duten adineko pertsonekin lan eginez gero, zaintzaileak itu-hizkuntza erabiltzeak onura emozionalak ekartzen ditu, eta alderdi hori kontuan hartzekoa da.

Ariketa hauen testuingurua ikasleak lantokian izango dituen behar errealetara lotuta dago, ikasketa-prozesutik ahalik eta onura handiena lortzeko.

Hizkuntzak ikasteko garaian, oinarritzkoa da testuingurua (linguistikoa nahiz egoerarena), ikasleentzat garrantzitsuak diren zereginak egiteko aukera ematen baitiete irakasleek ikasleei. Ikerketek adierazten dutenez, lantokian aplikatutako esaldiak eta hitzak askoz arrakastatsuagoak dira ohiko metodoak baino.

## C.1. SARRERA - ARIKETEN DESKRIBAPENA

Unitate honetako azalpenak adibide gisa hartu behar dira, eta diziplina anitzeko hurbilketa duten ariketak sortzeko erabil daitezke, adineko pertsonen osasunean eta zaintza sozialean dauden komunikazio-inguruneetan erabiltzeko modukoak direnak.

Ariketak irakasleentzat ahalik eta irisgarrienak eta aplikatzeko modukoak egiten saiatu gara. Diziplina anitzeko hurbilketaren bidez irakasteak ohiko irakaskuntza-metodoek baino engaiamendu handiagoa eskatzen du. Aldi berean, diziplina anitzeko hurbilketak erabiltzen dituen irakasleak bere erosotasun-eremutik kanpo atera eta aurretik kontuan hartu ez dituen teknika eta gai berriak lantzeko prest egon behar du.

Horrek esan nahi du irakasleek ere euren buruak kuestionatu eta motibatu egin behar dituztela hurbilketa horiek amaiera arte erabiltzeko (edo metodo horretan oinarritutako trebakuntzan gidatua izateko). Erronka handia bada ere, hurbilketa horiek erabiltzea atsegingarria ere bada, jakintza-eremu berrietarako sarrera izan baitaiteke eta ohiko irakaskuntza-metodoak beste ikuspegi batetik ikusarazten baitituzte.

Gutxiengoaren hizkuntzen kasuan, irakaslearen betebeharrak nagusia da motibatuta egotea eta irakasteko hurbilketa-mota gehiago erabiltzeko aukerari irekia izatea. Kasu askotan, irakasleek, modu subkonszientean, laneko gaitasuna lehenesten dute komunikatzeko beharrezko gaitasunak. Gutxiengoaren hizkuntzen kasuan, hori askoz nabarmenagoa izan ohi da, migratzaile gehienek gutxiengoaren hizkuntza hitz egiten baitute dagoeneko (H1 edo A1/H2 gisa).

Halakoetan, irakasleak gutxiengoaren hizkuntza erabiltzearen garrantzia eta aukera helarazi behar die ikasleei, eta, hori lortzeko, irakasteko modu berriak erabiltzeko gogoz egon behar da.

Saio bakarrerako egon daitezkeen hainbat hurbilketa konbinatuz osatu da hemen azalduko ditugun ariketen deskribapena. Mailaren eta ikasle-kopuruaren arabera, unitate bakoitza 2-6 irakaste-ordutan erabil daiteke. Lehen adibidea —“Higiene pertsonala”— lan fisikoko teknikan eta horrekin batera gertatzen den komunikazioan oinarrituta dago. Bigarren adibidea —“Mugikortasuna”—, berriz, komunikazio-estrategia kualifikatuagoetan dago oinarrituta (pazientearen motibazioa). Bi unitateetan landuko ditugu hiztegia, preposizioak, galdera-erantzunak, ahoskera eta/edo gutxiengoaren eta gutxiengoaren hizkuntzen arteko trantsizioa.

Hemen deskribatuko ditugun ariketak / unitateak adibideak besterik ez dira. Ereku bakoitzean behar diren komunikazio-beharrak askoz zabalagoak dira, eta konplexuagoak bihurtzen dira ikasle bakoitzaren mailaren arabera.

## C 1.2. DIZIPLINA ANITZEKO HURBILKETAK ERABILTZEN DITUZTEN ARIKETAK (OROKORRA)

Jarraibideak:

- Adibide hauetan, hainbat ariketa-mota konbinatzen ditugu (hausnarketak, mugimenduak, ekarpenak eta abar), saioan zehar eta ariketa batetik bestera ikaslea aktibo egoteko.
- Irakasleak gidatzen ditu ariketen aldaketak eta haien arteko trantsizioak, bera da “zuzendaria” eta ikasleei azalpenak ematen dizkie, ingurune egokian kokatzen ditu, ekarpenak prestatzen ditu (hizkuntza/gramatika-baliabideak), feedbacka eskatzen du eta ikasleak gauzak egitera animatzen ditu.
- Hurbilketa metodologiko honek ohiko ikastaroek baino material gehiago behar du. Material horretan sartzen dira, besteak beste, altzariak (eserlekuak edo mahaiak mugitzea), paretan idazteko papera eta errotuladoreak eta, batez ere, lantzen ari garen gaiarekin erlazionatutako “material erreala”. Irakasleak prestatu behar ditu materiala, espazioaren banaketa eta ariketa-sekuentzia. Hori guztia kontuan hartu behar da irakaste-saio bat prestatzerako garaian.
- Tresna-sorta honek ez ditu ikasleentzako “inprimakiak”. Hala ere, saioetan landutako gaietan oinarritutako “inprimakiak” sor daitezke edo testuliburu edo gramatika-liburuetan daudenetatik har daitezke, landutako hizkuntza-baliabideak gainbegiratzeko.
- Tresna-sorta honetan hizkuntzaren ahozko erabilerari ematen zaio lehentasuna, baina ez ditu baztertzeko eta idazteko gaitasunak. Osasun-zaintzako helburuetarako behar den gutxiengoaren hizkuntzako A1-A2 mailan sartzen dira, adibidez, laneko txantiloak irakurtzea eta idaztea, txantiloak, menuak, tratamenduen ordutegiak eta agindu-zerrenda sinpleak — “zakarrontziak ez dira hustu behar”— planifikatzea, eta ez pazienteen edo bileren txostenak egitea. Hurbilketa metodologiko honetan, lantokirako behar diren gaitasunak bereganatzeko soilik erabiltzen da irakurketa eta idazketa.



### C 1.3. DIZIPLINA ANITZEKO HURBILKETAK ERABILTZEN DITUZTEN ARIKETAK (GUTXIENGOAREN HIZKUNTZAK)

Jarraibideak:

- Hizkuntzak ikasterako garaian, garrantzitsua da arrakasta eta ahalduntzea berehala sentitzea, batez ere gutxiengoaren hizkuntzak ikasterakoan. Horregatik, eguneroko egitekoei buruzko ariketak sartzen dira. Adibidez “Hartu duzu giltza? - Hartu giltza! / Toalla behar duzu? Emadazu toalla”. Hala, ikasleek ikus dezakete zerbait lor dezaketela hizkuntza erabiltzerakoan.
- Halaber, garrantzitsutzat jotzen dugu ariketen aurretik eta ondoren gutxiengoaren hizkuntza erabiltzeari buruzko feedbacka eta hausnarketa txertatzea. Hori bideratzeko adibideak daude Mugikortasuna unitate didaktikoan edo bestelako material batzutan, adibidez: **GOGOAN IZAN**, euskaraz hitz egiten duen Alzheimerdun paziente baten testigantza jasotzen duen bideoa.
- Garrantzitsua da irakasleak igartzea ikasleek eskura dituzten hizkuntza-baliabide guztiak erabili dituztela, baita gehiengoaren hizkuntzarekin erlazionatutakoak ere.
- Gutxiengoaren hizkuntzarekiko jabetzeko erabiliko diren ariketak (“eskaintza aktiboa” erabiltzea, beste hizkuntza-estrategia batzuk eta abar) ikastaroaren hasieran erabil daitezke edo ikastaroan zehar txerta daitezke.

## C2: TRESNA-KUTXA

Unitate didaktikoetarako adibideak:

1. [COMBI Higienea - Dutxa unitatea](#)
2. [COMBI Motibazioa eta Mugikortasuna unitatea](#)
3. [Dokumentu hutsa norberak erabiltzeko](#)

### **Bideoak:**

- Dutxan laguntzea - I zatia (egoera)  
<https://vimeo.com/272257707>
- Dutxan laguntzea - II zatia (ikasgela)  
<https://vimeo.com/272257707>
- Adineko pertsona motibatzea - I zatia (egoera)  
<https://vimeo.com/272261016>
- Adineko pertsona motibatzea - II zatia (ikasgela)  
<https://vimeo.com/272914425>

## NOTES:

## NOTES:

# combiproject.eu



[facebook.com/COMBIproject](https://facebook.com/COMBIproject)



[twitter.com/project\\_combi](https://twitter.com/project_combi)

## Funding institution

EACEA, Erasmus+ KA2 Strategic Partnerships for adult education

## Project duration

01/09/2016 - 31/08/2019



This work is licensed under a Creative Commons Attribution 4.0 License



Co-funded by the Erasmus+ Programme of the European Union

The European Commission support for the production of this publication does not constitute an endorsement of the contents which reflects the views only of the authors, and the Commission cannot be held responsible for any use which may be made of the information contained therein.